SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2026ko otsaila

# ALDAHITZ IKERKETA PROIEKTUA

## 2025eko Memoria

Aurkibidea

Sarrera ........................................................................................... 2
Egindako lanen eskema ...................................................................... 3
Proiektuko Erakundeak........................................................................ 4
Garapen taldea eta proiektuaren kudeaketa orokorra ........................................ 5
1 *Uler-saioak* metodologia ...................................................................... 6
2 Sistema Integrala ...............................................................................11
3 Gipuzkoa Arigune...............................................................................15
4 Euskarara hurbiltzea ..........................................................................18
5 *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologiak........................................................20
6 Eranskinak .......................................................................................24
6.1 Ulermenaren neurketa *Uler-saio*etan ........................................................ 24
*6.2* *Trebatzaile*aren rola *Uler-saio*etan ........................................................ 26
*6.3* Tokiko hizkera *uler-saio*etan ................................................................ 27
*6.4* *Uler-saio*en trinkotzea........................................................................ 28
*6.5* 2024-2025eko esperientzien garapena ..................................................... 29
6.6 *Uler-saioak* metodologia. 2023-2024 Ikerketa ............................................. 31
6.7 Sistema Integrala. *Uler-saioak 3* eta *Ulerrizketa*ren arteko lotura. ................... 32
6.8 Sistema Integralaren definizioa ............................................................... 33
*6.9* Gipuzkoa arigunen eginiko bi ekarpen....................................................... 37
6.10 *Uler-saioak* esperientzien antolaketarako irizpideak (2024-2025).................... 38
6.11 Hizkuntza ohituren aldaketak. Arabako Lautadan. 2021. ............................... 42
*6.12* *Ulerrizketa* Metodologia. Material berritua. .................................................. 43
*6.13* *Eusle* metodologia. Material berritua. ........................................................ 48
*6.14* *Eusle* eta *Ulerrizketa.* lokalizazio fitxa berrituak........................................... 52

# SARRERA

2025a Aldahitz Ikerketa proiektuaren baitan urte emankorra izan da, besteak beste, jarraipena eman ahal izan zaielako urtez urte lantzen ari garen metodologien garapen eta ikerketa-lanari. Urteko lanketa orokorra, funtsean, hiru mailatan egin da: batetik, Aldahitzetik sortutako hiru metodologietan (*Eusle*, *Ulerrizketa* eta *Uler-saioak*) sakonduz; bestetik, hiru metodologiak konbinatzen dituen "Sistema Integralaren" garapena ere landuz; eta azkenik, *Uler-saio* eta *Ulerrizketa* metodologietan aritutako ulertzaileei elkarrizketak eginez, hurbilpen kualitatibo bat jasotze aldera ("Euskarara hurbiltzea" atala).

Guzti honen baitan, gainera, 2025. urtean zehar, Aldahitzeko garapen metodologikoa, formazioa eta esperientzien antolaketa koordinatu dugu Gipuzkoa Arigune egitasmoaren garapenarekin, azken horretan ere maila ezberdinean zuzenean parte hartuz.

Ondorengo orrietan duzue urtean zehar garaturiko jarduera guzti horri buruzko MEMORIA. "Egindako lanen eskema" atalean eskaintzen da lehenik ikuspegi orokor bat, kronograma bidez, proiektuaren sei lan-ildoetako bakoitzean urtean zehar egin diren lanak eta horien egutegia erakusten duena. Ondoren, lan-ildo horietako bakoitzean eginiko lanak deskribatzen dira atalez atal, kasu batzuetan eranskinetan informazio osagarria ere eskainiz.

Urte honetan bi izan dira bereziki jarduerarik zabalenak eta kualitatiboki esanguratsuenak:

- Sistema Integralari dagokiola, hiru metodologien konbinaketa nola egin pentsatu da, definizio eta lanketa zehaztuz. Sistema hori izendatu ere egin dugu: *"Eraikhitz sistema. Euskaraz elkar ulertzeko gure bidea"*. Sistemaren proba pilotuetarako lehen urratsak ere eman dira.
- *Uler-saioak* metodologien lanketari dagokiola, aditu taldearekin batera, hainbat esperientzia abiatu dira (18 guztira). Honetaz gain, Ane Ortega ikerlariarekin, 2023-2024 ikasturteko *Uler-saioetan* eskuratutako datuen analisia egin da baita ere.

Guzti horrekin batera, Gipuzkoa Arigune ekimenarekiko koordinazioa zaindu da une-oro, eta gainerako bost lan-ildoen bitartez, jarraipena eman zaio hiru metodologien garapenari, haien gaineko ikerketa, aplikazio praktiko zein zabalkundeari.

# EGINDAKO LANEN ESKEMA

| LAN-ILDOAK | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| **1.- Uler-saioak metodologia** | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzia berriak antolatzea (2024-2025) | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzien jarraipena eta datu bilketa (2024-2025) | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| 2023-2024 esperientzien analisiak | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| 2023-2024 esp. Emaitzak, ondorioak, zabalkundea | | | | | | | | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **2.- Sistema integrala** | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Uler-saioak 3 > Ulerrizketa. Esp. berriak antolatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Uler-saioak 3 > Ulerrizketa. Jarraipena eta datu bilketa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Uler-saioak 3 > Ulerrizketa. Analisiak, emaitzak, ondorioak | | | | | | | | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Sistema orokorra. Lehen definizioa – lanketa | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Sistema orokorra. Lehen proba pilotuak | | | | | | | | / | | | ■ | ■ |
| **3.- Gipuzkoa arigune** | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Batzordea. Proiektuaren garapena. Lanketak | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Koordinazio teknikoa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **4.- Euskarara hurbiltzea** | ■ | | ■ | ■ | ■ | | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Diseinua | ■ | | | | | | | / | | | | |
| Datu bilketa eta analisia | | | ■ | ■ | | | | / | | ■ | | ■ |
| Txostena | | | ■ | ■ | ■ | | ■ | / | ■ | | | |
| Kontrasterako mintegia | | | | | | | ■ | / | ■ | | ■ | |
| Gainerakoak | | | | | | | | / | | ■ | ■ | |
| **5.- Eusle metodologia** | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Materialak – egokitzapen metodologikoa | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzia pilotuak Gipuzkoa arigunen | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **6.- Ulerrizketa metodologia** | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Materialak – egokitzapen metodologikoa | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzia pilotuak Gipuzkoa arigunen | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |

# PROIEKTUKO ERAKUNDEAK

Lankidetzan garatzen den ikerketa-proiektua da Aldahitz. Lankidetza, batetik, proiektuari baliabideak eta babesa ematen dioten erakunde publikoekin (*proiektuan partaide eta babesle*), eta bestetik, euskararen erabilera sustatu asmoz egiten diren plangintzen diseinuan eta inplementazioan ezagutza teknikoa, esperientzia eta harremanen sarea duten erakunde eta profesionalekin (*proiektuan partaide*).

*Proiektuan partaide eta babesle diren erakundeak:*

- *Gipuzkoako Foru Aldundia (Etorkizuna Eraikiz eta Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza)*
- *Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)*
- *Nafarroako Gobernua (Euskarabidea)*

*Proiektuan partaide diren erakundeak:*

- *Euskararen erabilera sustatzeko plangintzen diseinuan eta inplementazioan ari diren lau enpresa/eragile: Ahize-AEK, Artez, Elhuyar eta Emun*
- *Taupa Euskaltzaleen mugimendua*

*Lankide-aholkulari:*
*Uler-saioak* metodologiaren garapenean, lankidetza ari gara HABErekin.

# GARAPEN TALDEA ETA PROIEKTUAREN KUDEAKETA OROKORRA

Proiektuan partaide diren erakunde guztiak Garapen Taldean biltzen dira. Hori da proiektuaren koordinaziorako gune nagusia. Azpiko argazkian, Garapen Taldearen 2025eko argazkia:



Ezkerretik eskuinera: Raul Perez (Ahize-AEK-ko ordezkaria, Maialen Begiristainen ordez); Gipuzkoako Foru Aldundiko Itziar Urteaga eta Joxean Amundarain; Soziolinguistika Klusterreko Pablo Suberbiola eta Iñigo Beitia; Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzatik Sonia Isasi; Taupako Xuban Zubiria; Elhuyar Aholkularitzako Uxue Loinaz; eta Emuneko Xabi Bosch. Artez Euskara zerbitzuko eta Euskarabideako kideak falta dira.

2025. urtean, proiektuaren kudeaketak aurreko urteetako dinamika bera mantendu du. Proiektuko Garapen Taldea izan da erabaki eta koordinazio gune nagusia, eta bertan elkartu dira proiektuan "partaide" zein "partaide eta babesle" diren zortzi erakundeetako ordezkariak.

Garapen taldeak hiru bilera egin ditu urtean zehar, aurrez aurrekoak eta on-line motakoak konbinatuz: urtarrilean, maiatzean eta azaroan. Hain zuzen, bilera hauen bitartez egin da erakunde horietatik urteko egitasmoaren jarraipen nagusia.

Garapen Taldeko bilerez gain, lehentasunezko egitekoak izan dira lan-ildo honetan urteko egitasmoaren diseinua, planifikazioa eta haren urte osoko jarraipena eta kudeaketa. Era berean, ohi bezala, urtearen amaiera aldera garaturiko jardueraren memoria-txostena osatu da (esku artean duzuen hau).

Lehentasunezko lan horiez gain, urtean zehar harremanak mantendu dira, bai Garapen Taldeko erakundeekin eta bai proiektutik kanpokoekin. Azkenik, urtea amaitu aurretik 2026ko egitasmoaren oinarri nagusiak landu dira.

# 1 *ULER-SAIOAK* METODOLOGIA

| | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| ***Uler-saioak* metodologia** | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzia berriak antolatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzien jarraipena eta datu bilketa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| 2023-2024 esperientzien analisiak | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| 2023-2024 esp. Emaitzak, ondorioak, zabalkundea | | | | | | | | / | ■ | ■ | ■ | ■ |

2025 urte honetan zehar, *Uler-saioak* metodologiaren atalean garatu da Aldahitz Ikerketa proiektuko egitasmoaren zati zabalenetariko bat. Jarraian erakutsiko den bezala, 2025eko Egitasmoan aipatzen diren ardatz nagusiak betetzea lortu da, besteak beste, metodologiaren garapen, ikerketa eta estandarizaziora begirako urratsak eginez eta esperientzia ezberdinak antolatuz.

Lan guzti hau berriz, Aldahitz Ikerketa Taldea eta aditu taldearen[1] bitartez egin da, Aldahitzeko lantaldetik, hain zuzen. Hona taldearen gaur egungo argazkia:

Ezkerretik eskuinera: Pablo Suberbiola (Aldahitz Ikerketa Taldeko zuzendaria); Raul Perez (Ahize-AEK); Uxue Loinaz (Elhuyar); Xabi Bosch (EMUN); eta Iñigo Beitia (Aldahitz Ikerketa Taldeko ikerlaria)



Aditu taldeak *Uler-saioak* metodologiaren garapena egiteaz gain, esperientzia ezberdinen jarraipena egiten du eta baita *trebatzaile*en formazioa zein aholkularitza

[1] Aditu taldea Aldahitzeko Garapen Taldean dauden Elhuyar, Ahize-AEK eta EMUN-eko kideek osatzen dute.

ere. Ikerketa Taldeak aldiz, esperientzietako datuak jaso eta hauen gaineko interpretazioak egiten ditu. Aditu taldeak hilean bitan eduki ohi du bilera eta Ikerketa Taldea berriz, hilean behin batu ohi da beraiekin, esperientzien jarraipena egiteko.

2025. urte osoan zehar aditu-taldean landu den ildo bat garapen metodologikoarena izan da:

1) Batetik, joan den ikasturtean lantzen hasitako *uler-konpetentziak* findu dira (modu esperimentalean lantzen ari garen ulermenerako sistema propioa). Ariketa honetan, *ulertzaile*en ulermenaren garapena neurtzeko, item bat gaineratzea erabaki da, tresna baliagarriagoa izateko helburuarekin.

2) *Uler-saio*etan ulermenaren neurketa nola landu den eta garapenean hartu izan diren hautuak jasotzen dituen dokumentu bat egin da baita ere, ibilbide guztia ondo jasota egoteko (Begiratu 6.1 eranskina).

3) *Trebatzaile*aren rola ere landu da. Dokumentu batean jaso nahi izan dira *trebatzaile*aren egitekoak, ez soilik *ulertzaile*ekiko, baizik eta prozesuan parte hartzen duten beste eragileekiko ere; izan guneko arduradunak, izan mintzatzaileak (Begiratu 6.2 eranskina).

4) Gainera, tokiko hizkera *Uler-saio*etan nola txertatu ere izan da hizpide; metodologiaren ezaugarri nagusiak bere horretan mantenduta ere, egunez eguneko programazioan moldaketatxoak egiteko aukera irudikatu da, *ulertzaile*ak bizi diren udalerriko euskara jaso dezaten (Begiratu 6.3 eranskina).

5) Azkenik, *Uler-saio*en modulazioa trinkotzera begirako lanketa egin da. Orain artean, nagusiki, eta zikloa edozein delarik ere, astean bi orduko bi saio aurreikusi dira, salbuespenak salbuespen. *Uler-saio*en prozesu osoa modu trinkoan egitea aipatzen denean zera planteatzen da: astean 20 ordu eskaintzea. Modu honetara, metodologia osoa askoz azkarrago landuko litzateke, ulermena azkarrago eskuratuz. Hain zuzen, hau gauzatzeko zein irizpide hartu beharko liratekeen kontutan garatu da (Begiratu 6.4 eranskina).



Garapen honetaz gain, 2025. urtean hainbat *Uler-saio* esperientzia antolatu dira: 18 talde eta guztira 131 *ulertzaile*ren parte hartzea. Hona jarraian 2025. urtean antolatutako esperientzien zerrenda:

| 2025ean egindako *ULS* esperientziak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **TALDEA** | **Udalerria** | ***Uler-saioak*** | **HASIERA-DATA** | **AMAIERA-DATA** |
| **1** | SOS + Koldokide nahasita (goiza) | Errenteria | *Uler-saioak 3* | Urriak 10 (2024) | Otsailak 27 |
| **2** | SOS + Koldokide nahasita (arratsaldea) | Errenteria | *Uler-saioak 3* | Otsailak 22 (2024) | Otsailak 27 |
| **3** | CAF Beasain | Beasain | *Uler-saioak 3* | Urtarrilak 14 | Maiatzak 15 |
| **4** | Errenteria-Udal euskaltegia (goiza) | Errenteria | *Uler-saioak 1* | Otsailak 11 | Martxoak 31 |
| | | | *Uler-saioak 2* | Apirilak 27 | Ekainak 19 |
| **5** | Errenteria Udal Euskaltegia (arratsaldea) | Errenteria | *Uler-saioak 1* | Otsailak 11 | Apirilak 1 |
| | | | *Uler-saioak 2* | Apirilak 29 | Ekainak 19 |
| **6** | Danobat Group | Online | *Uler-saioak 3* | Martxoak 4 | Uztailak 8 |
| **7** | Iruñeko Mintzakide | Iruñea | *Uler-saioak 2* | Martxoak 18 | Ekainak 5 |
| **8** | Garbera Merkataritza Gunea -Donostia | Donostia | *Uler-saioak 1* | Maiatzak 5 | Ekainak 26 |
| **9** | Grupo SSI | Bilbo | *Uler-saioak 1* | Maiatzak 7 | Ekainak 30 |
| | | | *Uler-saioak 2* | Urriak 20 | Abenduak 10 |
| **10** | Elgoibar | Elgoibar | *Uler-saioak 1* | Urriak 7 | Azaroak 27 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **11** | Gipuzkoa Arigune-Añorga-(arratsaldez) | Añorga | *Uler-saioak 2* | Urriak 13 | Abenduaren hasieran |
| **12** | Gipuzkoa Arigune -Aia (goiza) | Aia | *Uler-saioak 1* | Urriak 13 | Abenduaren hasieran |
| **13** | Gipuzkoa Arigune- Aia (arratsaldez) | Aia | *Uler-saioak 1* | Urriak 13 | Abenduaren hasieran |
| **14** | Gipuzkoa Arigune-Antzuola (goizez) | Antzuola | *Uler-saioak 1* | Urriak 13 | Abenduaren hasieran |
| **15** | Gipuzkoa Arigune-Antzuola (arratsaldez) | Antzuola | *Uler-saioak 1* | Urriak 13 | Abenduaren hasieran |
| **16** | Gipuzkoa Arigune-Añorga- goiza | Añorga | *Uler-saioak 1* | Urriak 14 | Abenduaren amaieran |
| **17** | Fagor | Online | *Uler-saioak 1* | Azaroak 4 | 2026ko otsailean |
| **18** | Añarbeko Urak | *Uler-saioak 3* | *Uler-saioak 3* | Urriak 14 | 2026ko martxoan |

Taula begiratuta ikusi daitekeen moduan, 2025. urtean hainbat esperientzia antolatu ahal izan dira metodologiari dagokiola. Azpimarratu behar da taulako 1 eta 2 esperientzien azken zikloko orduetariko batzuk egin direla 2025. urtean. Gainerako guztiak berriz, aurreko urtean egin ziren, 2024an. Era berean, 17 eta 18 esperientziak ez dira amaitu 2025aren barruan eta jarraipena izango dute 2026an.

*Uler-saioak* metodologiaren asmotariko bat zikloen (*ULS1*, *ULS2* eta *ULS3*) arteko jarraipena bermatzea da, metodologia modu integral batean garatzeko asmotan. Aldahitzeko Ikerketa Taldeak zein aditu taldeak ideia hau erabat barneratuta du eta honegatik, ahal izan denean, zikloen jarraipena egitea ahalbidetu da. Hala ikusi daiteke adibidez, Errenteriako udaleko goiz eta arratsaldeko bi taldeetan (*ULS1* eta *ULS2* egin zituzten) edota Grupo SSI enpresan (honetan ere, *ULS1* eta *ULS2*).

Abiatutako esperientzia gehienak berriz, *ULS1*ekoak izan dira eta online modalitatea ere landu da, ikerketarako lanketa interesgarria delakoan. Bestetik, Aldahitzek Gipuzkoa Arigune ekimenarekiko hartutako konpromezua ere erabat bete du, honen barruan esperientziak garatzea ahalbidetu baitu (sei, guztira), hauen jarraipena egiten. Azkenik, aipatzekoa da 2025. urtearen amaieran hasitako esperientziek (Gipuzkoa Ariguneri loturikoek adibidez), 2026ean jarraipena edukiko dutela.

Esan bezala, aditu taldeak zein Aldahitzeko Ikerketa Taldeak esperientzia guzti hauen jarraipena egin du, besteak beste, *trebatzaile*en jarraipena eta aholkularitza-saioak egin baitira aditu taldeko kideen partetik. Gainera, metodologiaren garapenerako beharrezkoak diren ikerketarako datuak ere sistematikoki jaso dira esperientzia bakoitzean.

Txosten batean 2024-2025eko esperientzien bilakaerari buruzko nondik norako nagusiak jaso ziren. Dokumentu honetan esperientzien ikerketa-helburuak, 2024-2025eko esperientzien datu orokorrak, *ulertzaile*en ulermenaren ebaluazioa, balorazio kualitatiboa eta hauetatik jasotako ondorio nagusiak jaso dira[2] (Begiratu 6.5 eranskina).

**<u>2023-2024 ikasturteko ULS esperientzien lanketa</u>**

Azaldu berri ditugun bi lan-ildoez gain, hots, garapen metodologikoa eta esperientzia berrien antolaketa zein datuen jasotzea, 2025. urtean zehar *Uler-saio*ei dagokien ardatz nagusi bat 2023-2024 ikasturtean egin ziren esperientzietatik jasotako datuen lanketa egitea izan da. Gauzak honela, analisi horietatik ondorio berriak ateratzea izan da helburua, hauen zabalkundea egiteko ondoren. Esan beharrekoa da, gainera, lan hau egiteko Aldahitzeko Ikerketa Taldeak Ane Ortega ikertzailearen[3] kolaborazioa eduki duela.




Datu hauei loturiko analisi eta ondorioak txosten batean jaso dira, "*Uler-saioak* metodologia, 2023-2024 ikasturteko esperientzien irakaspenak" izenburupean (Begiratu 6.6 eranskina**)**. Ikerketa-lan honen zabalkundea 2026. urtean zehar egingo da.

Txosten honen lanketak halere, badu bestelako helbururik. 2025eko Egitasmoan adierazi bezala, urte honetako helburuetako bat *Uler-saioak* metodologiaren definizio eta lanketa ea garapen-maila egoki batera iritsi den baloratzea zen, tresna finkatutzat emateko. Edota, aldiz, oraindik modu pilotuan, garapenean, jarraitu behar duen. Hain zuzen, 2023-2024 ikasturtean egindako esperientzien analisiek zein aditu taldearen balorazioak hartu dira kontuan balorazio hori egiteko.

Txostenak kaleratzen dituen emaitzak eta aditu taldearen aldeko iritziarekin, Ikerketa Taldeak erabaki du *Uler-saioak metodologia* finkatutzat ematea, hots, oraindik hobetzekoak eta garatzeko elementuak izan arren, tresna gisa finkatutzat ematea eta beraz "pilotaje" fasea amaitutzat ematea.

---

[2] Dokumentu hau *Uler-saio* esperientzia bakoitzarekin egiten den itzulketa-txostenetatik abiatuta egin zen.

[3] Ortega doktorea da Londresko Unibertsitatearen eskutik. Ikerketari dagokiola, bere jarduna hizkuntza gutxituen soziolinguistikan edota hizkuntzaren didaktikari lotuta jazo da. Hainbat lan ditu kaleratuta, artikulu zein liburuak (bere lanak ikusteko, begiratu: https://dialnet.unirioja.es/servlet/autor?codigo=753303).

# 2 SISTEMA INTEGRALA

| | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| **Sistema Integrala** | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| *Uler-saioak 3* > *Ulerrizketa*. Esp. berriak antolatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| *Uler-saioak 3* > *Ulerrizketa*. Jarraipena eta datu bilketa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| *Uler-saioak 3* > *Ulerrizketa*. Analisiak, emaitzak, ondorioak | | | | | | | | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Sistema orokorra. Lehen definizioa – lanketa | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Sistema orokorra. Lehen proba pilotuak | | | | | | | | / | | | ■ | ■ |

Sistema Integralaren baitan 2025eko egitasmoan hainbat lanketa irudikatu ziren. Lanketa hauek, bi talde nagusietan banatzen dira: batetik, hiru metodologien arteko loturak, horien arabera osatu litezkeen hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko prozesuen lanketa; bestetik, Sistema Integralaren definizio eta diseinu orokorreko urratsak. Jarraian, hauetariko bakoitzean egindakoa azalduko da.

Hasteko, 2025eko urtean hainbat esperientzia antolatu dira *ULS3* eta *Ulerrizketa* metodologien arteko loturak ikertu ahal izateko:

Badalab-eko esperientziak
"Euskaraldi Indartua"
EJIE
DANOBATGROUP

- <u>*Badalab-eko esperientziak*</u>

  *ULS3* amaitu zuten sei *ulertzaile*ri eman zitzaien aukera *Ulerrizketa* metodologiarako jauzia egiteko. Printzipioz, sei *ulerrizketa-unitate* sortu ziren, bakarra izanik bi *mintzatzaile* eta *ulertzaile* batez osatutakoa (gainerakoak *ulertzaile* eta *mintzatzaile* bana zituzten). Nolanahi ere, unitate guzti hauetatik batek bakarrik garatu zuen esperientzia osorik.

- <u>*SLK eta Badalab-en artean antolatutako "Euskaraldi Indartua Oreretan" ekimena*</u>

  *ULS3* amaituta zuten hainbat *ulertzaile*k inguruan *mintzatzaile*rik ez zutela ikusita, eta Euskaraldia testuinguru lagungarri gisa hartuta, Errenterian komunitate mailan, *ULS3* eta *Ulerrizketa* metodologien arteko urratsa emateko dinamika bat diseinatu, antolatu eta garatu da. Udalerriko eragileetako kideek *mintzatzaile* gisa jardun zuten *ulertzaile*entzat. Orotara, 8 *ulertzaile* eta 19 *mintzatzailek* hartu zuten parte ekimen honetan.

- <u>*EJIE, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea*</u>

  Gune honetan *Ulerrizketa*-unitate bat osatu da, bi *mintzatzaile* eta *ulertzaile* batekin.

- <u>*DANOBATGROUP enpresa*</u>

  Gune honetan bi *ulerrizketa-unitate* sortu ziren: batek *mintzatzaile* eta *ulertzaile* bana eduki zituen eta bigarrenak berriz, bi *mintzatzaile* eta *ulertzaile* bat.

Orotara beraz, lau gune ezberdinetan eraman ziren aurrera *ULS3* eta *Ulerrizketa* metodologiaren loturaren arteko ikerketak. Gune hauetako batean abiatutako esperientzia (Errenteriako, "Euskaraldi Indartua"), ezberdina izan zen, metodologiaren oinarrietatik aldetzen zelako. Hala ere, DANOBAT, EJIE eta Badalab-etik aurrera eraman ziren esperientziak metodologiaren oinarriekin egin ziren, orotara, lau kasuren lanketa eginez.

Bestelako esperientzia eta kasuetan bezala, aurten ere antolatutako -eta orain aipatutako- esperientzien jarraipena eta datu bilketa egin da. Honetarako berriz, hainbat tresna erabili dira datuen jasoketa egiteko: asteroko jarraipen fitxak, aukeren fitxa, balorazio fitxak eta formazio zein ebaluazio txostenak. Modu honetara, kasuen azterketarako beharrezkoak diren datu kuantitatibo eta kualitatiboak lortu dira.




Ildo honi loturiko bestelako lan bat 2024-2025 ikasturtean aurrera eraman ziren *ULS3* eta *Ulerrizketa*ren arteko lotura ikertzeko esperientziak analizatzearena izan da. Txosten honetarako, orotara, hiru gunetako informazioa hartu da oinarri moduan: EDE (2024ko esperientzia), Badalab-eko esperientziak eta azkenik, "Euskaraldi Indartua" ekimena. Esan bezala, azken ekimen honen oinarriak ezberdinak dira metodologiarekiko baina orotara lau kasuren gaineko azterketa egin ahal izan da (EDEko hiru eta Badalab-eko 1).

Txostenean lehenengo, ikerketaren testuingurua zein den azaltzen da, metodologien oinarri teorikoak landuz. Modu honetara, ikertu nahi dena zer den azaltzen da, baita metodologien baldintzak ere. Ondoren, datuen bilketa da hizpide, honetarako

erabilitako tresnak eta ikerketaren unibertso osoa zeintzuk izan diren azalduz. Gero, kasuen azterketak lantzen dira, datuen bilketarako tresnek emandako informazioa kontutan hartuta. Azkenik, ondorioak eta aurrera begirako proposamenak (Begiratu 6.7 eranskina). Txosten honen zabalkundea 2026. urtean zehar egingo da.


SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2025eko azaroa

SISTEMA INTEGRALA
*Uler-saioak 3* eta *Ulerrizketaren* arteko lotura

2024-2025eko esperientziak

Aldahitz Ikerketa Taldea

## Sistema Integralaren definizioa

Ikasturte honetan Sistema Integralaren definizioaren lanketa egin da. Diseinu honetan kontutan hartu dira besteak beste, oinarri teoriko eta helburuak, zein Sistemaren aplikaziorako irizpide eta moduak. Modu honetara, bi mailatan landu da aipatu definizioa, helburu eta kontzeptu mailan (maila orokorra), eta maila operatiboan: antolaketari eta aplikazio praktikoari begira. Horrez gain, Sistemari izen propioa ere jarri zaio: *"Eraikhitz sistema. Euskaraz elkar ulertzeko gure bidea"*.

Lan honek oraindik zabalkunderik eduki ez duen arren, laster kaleratuko da definizioaren dokumentu ofiziala. Eranskinetan (Begiratu 6.8 eranskina) behin-behineko dokumentua dago eta baita ere Gipuzkoa Arigune proiektuaren urriaren 6ko Batzordean gai honi buruz egin zen aurkezpenaren dokumentua.







Lan honetan zehar Aldahitz-eko hiru metodologien batura nola egin landu da, irizpide eta prozesuak definituz. Hasiera batean, lan-munduari lotuta egindako lanketa izan da baina helburua hortik kanpo kokatzea ere izango litzateke.

Hain zuzen, behin definizioaren lanketa eginda, lehen proba pilotuak lantzeko lan-ildoa ere abian jarri ahal izan da, oraindik proba pilotua bera martxan jarri ez den arren.

EMUNetik kontaktuan jarri ziren SLK-rekin, Gipuzkoa Ariguneren baitan lantzen ari diren "enpresa arigune" lan-ildoa dela eta. Beraien proposamena Sistema Integralarekin proba pilotu bat aurrera eramatekoa zen eta SLK-tik proposamena ontzat jo zen. Areago, EMUNetik proposatu zen enpresa-kasuak Klusterrak landutako irizpideekin nahiko bat egiten zuen eta honegatik, proiektu honetan bat egitea erabaki da.

2026ra begirako helburuetariko bat *Eraikhitz sistemaren* proba pilotu ezberdinak garatzea da: batetik, lehen kasu honetan bezala, enpresetan; baina baita ere, ahal dela, enpresa ez diren gune eta erakundeetan.

# 3 GIPUZKOA ARIGUNE

| | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| **Gipuzkoa Arigune** | | | | | | | | | | | | |
| Batzordea. Proiektuaren garapena. Lanketak | | | | | | | | | | | | |
| Koordinazio teknikoa | | | | | | | | | | | | |

Gipuzkoa Arigunekoa (G.A) urte osoan zehar landu den lan-ildoa izan da. Hain zuzen, egitasmoa diseinatzeko orduan kontuan hartu da G.A proiektuaren garapena, eta urtean zehar zaindu da bien arteko osagarritasuna eta koordinazioa.

Esan bezala, Aldahitz proiektuak zuzeneko inplikazioa izan du ekimenaren garapenean, eta bere ekarpena egin du proiektuko metodologietatik eta hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen gaineko ezagutzatik.

Urte honetan zehar, besteak beste, ondorengoak dira Aldahitzen aldetik landutako eremuetako batzuk ekimenari dagokiola:

- Ikerketa Taldeko kideek modu iraunkorrean hartu dute parte G.A proiektuaren Batzordean, besteak beste, proiektuaren garapen eta aurrerapen orokorrean.
  - 2025. urtean sei bilera egin ziren orotara[4] eta SLK-ren aldetik, hainbat gai landu ziren: *Uler-saioak* esperientzien antolaketa 2024-2025 ikasturteari dagokiola; Euskarara Hurbiltzea Ikerketa 2025-2026[5]; edota Sistema Integralaren definizio eta lanketa.




[4] Urtarrilean, martxoan, maiatzean, uztailean, urrian eta azaroan.
[5] Ikusi 6.9 eranskina.

- Koordinazio bilerak egin ziren Taupa eta Aditu Taldearen artean, metodologien inplementazio eta jarraibideei gaineko argibideak emanez:
    - 2025aren lehen lauhilekoan saio bat egin zen Aditu Taldeko zein Aldahitzeko kide eta Taupa Mugimenduko arduradunekin, *Uler-saio*en gaineko irizpideak azaltzeko[6].
    - Uztailaren 15ean beste lan-saio bat egin zen Aditu Taldea eta Taupa Mugimenduko kideen artean, G.A ekimenean *Uler-saio*ei dagokiela egindako planifikazioa azaltzeko asmotan: prozesuaren azalpena, ordurarteko izen-emateak, egutegia, Aditu Taldetik egin beharrekoak trebatzaileekin etab.




- Aldahitzeko lantaldetik jarraipena egin zaie G.A barruan sortu diren *Uler-saio* taldeei. Orotara, sei talde sortu dira ekimenaren baitan:

| | Antzuola 1 | Antzuola 2 | Añorga 1 | Añorga 2 | Aia 1 | Aia 2 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zikloa** | ULS1 | ULS1 | ULS1 | ULS2 | ULS1 | ULS1 |

- *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologien egokitzapenak egin dira (ikus beherago txostenaren 5. atala)

[6] Argazkiko dokumentua helarazi eta lantzeaz gain, 6.10 eranskinean bileran erabili zen PPTa dago.

Aldahitzek, beraz, partaidetza zuzena eduki du Gipuzkoa Arigune ekimenaren baitan 2025. urte osoan zehar, ekarpen propioak eginez, proiektuaren garapen, definizio eta aurrerapen orokorrean:

## Zer da egin dena?

**Gipuzkoa Ariguneko batzordean partehartzea**

***Uler-saioak* esperientzien antolaketa 2024-2025**

**Euskarara Hurbiltzea 2025-2026**

**Aldahitzeko lantaldetik Uler-saioen esperientzien jarraipena Gipuzkoa Arigunen**

- **Orotara, sei esperientzien jarraipena (5 ULS1 ziklokoak eta 1 ULS2 ziklokoa)**

**Taupa Mugimendua eta Aditu taldearen arteko koordinazio bilerak**

- **Udaberriko bilera**
- **Uler-saioen gaineko planifikazioaren azalpena**

**Eusle eta Ulerrizketa metodologien egokitzapenak**

# 4 EUSKARARA HURBILTZEA

| | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| **2.-Euskarara hurbiltzea** | ■ | | ■ | ■ | ■ | | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Diseinua | ■ | | | | | | | / | | | | |
| Datu bilketa eta analisia | | | ■ | ■ | | | | / | | ■ | | ■ |
| Txostena | | | ■ | ■ | ■ | | ■ | / | ■ | | | |
| Kontrasterako mintegia | | | | | | | ■ | / | ■ | | ■ | |
| Gainerakoak | | | | | | | | / | | ■ | ■ | |

“Euskarara hurbiltzea” ikerketa-ildo osagarria 2024ean hasi zen lantzen eta euskararekiko urrun egon diren pertsonen hizkuntzarekiko gerturatze-prozesuak ulertzeko sortutako ikerketa-esparrua da. 2024an eginiko lehen azterketa eta definizioaren emaitzek bidea ireki zuten 2025ean garatzen hasi den ikerketari, eta *Uler-saioak* eta *Ulerrizketa* metodologien arteko jarraipena eta lotura aztertzera bideratu du arreta nagusia. Horrela, 2024an egindako lanak aukera eman du hiztunek *Uler-saioetan* eskuratutako ahozko ulermenaren mailatik *Ulerrizketa* esperientzietara igarotzean bizi duten bilakaera ikertzeko oinarriak ezartzeko.

Hortaz, ikerketa honen helburu nagusia kontuan hartuta (euskarazko ahozko ulermenik ez duten edo oso apala duten hiztunek oinarrizko ulermena eskuratu ondoren euren ingurune hurbilean euskara erabiltzen hasten diren prozesuak eta haien ondorioak aztertzea), 2025. urtean zehar 2025-2026 bi urteetarako bere garaian diseinatu eta ontzat emandako ikerketaren lehen zatia garatu da, ikerketa sinkronikoa (une zehatz batean) eta diakronikoa (denboran zehar, sujetu zehatz batuengan) konbinatuz.

Hurrengo irudian, *Uler-saioak* > *Ulerrizketa* prozesu osoaren irudia, eta datu-bilketak egiteko prozesu horretan hobetsi diren uneak adierazi dira.




Egindako diseinuari jarraiki, 2025eko azterketan, ikerketaren fokua *Uler-saioak* > *Ulerrizketa* prozesuan jarri da, bi metodologien aplikazioan partaideek izan dituzten bizipenetan eta haiei prozesu horrek “ekarri dien” horretan, eta guztira urtean zehar

16 elkarrizketa egin dira: zortzi *Ulerrizketa* hasi aurretikakoak (*Uler-saioak* metodologiaren une ezberdinetan eginak) eta beste sei *Ulerrizketa* amaitu ondoren egindakoak.

Datu-bilketa horien bidez, helburuak honako hauek izan dira: parte-hartzaileen hautemateetan bilakaeraren jarraipena egitea eta haien bizipenak sakonago ezagutzea, prozesuaren une gakoetan gertatzen diren aldaketak identifikatzea, eta prozesuan eragiten duten aldagai nagusiak eta jasotako onurak identifikatzea.

Fase honen datu-bilketa estuki lotuta dago *Ulerrizketa* esperientzien antolamenduari, *Uler-saioak* > *Ulerrizketa* loturari eta esperientzia horien egutegiari. Hortaz, ikerketaren erritmoa eta faseak saioen eta taldeen garapenaren arabera egokitu dira.

Hurrengo urtean ere datuak jasotzen jarraitzea aurreikusi da, eta orduan egingo da 2025 eta 2026an zehar aztertutakoaren analisi osoa: 2025ean jasotako datuen azterketa sakona egingo da, 2024ko hastapeneko ikerketaren oinarria ahaztu gabe, datu jasoketa osagarriak egin, eta guztiarekin azken emaitza osatzeko. Amaierako emaitza espero da baliagarria izatea, besteak beste, Gipuzkoa Arigune proiektuan euskararen ulermena eta erabilera sustatzeko diren hainbat gako identifikatzeko eta zehazteko.

2025ean egindako lana berariazko barne txosten batean jaso da.


SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2025ko abendua

ALDAHITZ IKERKETA 2025

**Ildo osagarria: Euskarara hurbiltzea**

**2025-2026 ikerketa**

# 5 *EUSLE* ETA *ULERRIZKETA* METODOLOGIAK

| | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| ***Eusle* metodologia** | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Materialak – egokitzapen metodologikoa | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzia pilotuak Gipuzkoa arigunen | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |

| | 2025 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| ***Ulerrizketa* metodologia** | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Materialak – egokitzapen metodologikoa | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Esperientzia pilotuak Gipuzkoa arigunen | | | | | | ■ | ■ | / | ■ | ■ | ■ | ■ |

2025ean zehar garaturiko jarduera kontuan hartuta, *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologiekin egindakoak batera aipatuko dira 2025eko Memoria honetan, besteak beste, bi metodologiekin egindako lanak parez-pare joan direlako, paraleloan[7].

Aurtengo egitasmoaren baitan, *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologien garapen eta ikerketan urrats berri bat egitea aurreikusi zen, Gipuzkoa Arigune ekimenaren testuinguruan. Ekimen horren barruan *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologiak aplikatzea irudikatzen da, halere, aplikazio hauek metodologia berez sortuta dagoen testuinguruetatik kanpo egingo dira (lan mundutik kanpo, alegia). Honegatik, metodologiaren jatorrizko ezaugarri, material eta aplikazio-irizpideak kontutan harturik, balizko esperientzien lokalizazioa eta antolaketa errazteko materialak prestatu dira Aldahitzetik, ekimenaren barruan eta antolaketa prozesuan ari den Taupa Mugimenduarentzat. Hain zuzen, prozesu hau beraiekiko hartu-emanean landu da. Bestalde, material horiek lantzean, helburu izan da ere euskarri dibulgatibo berri moduko bana sortzea, bi metodologien argitalpenen osagarri izango dena, Gipuzkoa Arigunen zein bestelako ekimenetan bi metodologia hauek ongi aplikatzeko zaindu beharreko gai nagusiak modu labur baina zehatzean jasoko dituena.

**<u>Bi material berriak sortzeko jarraitutako prozesuaren urratsak</u>**

1) Metodologien garapen hau egiteko, Aldahitzeko Ikerketa Taldea 2021ean kaleratu zuen lan baten oinarritu da. Ikerketa honetan, Arabako Lautadako testuinguruan, harreman afektiboetan (lagunartean, familian) hizkuntza-ohituren aldaketak ikertzen saiatu ziren, *Eusle* eta *Ulerrizketa* metodologien bitartez[8].

[7] Hala ere, kontutan eduki behar da bi metodologiek garapen adar propioak dituztela.
[8] Begiratu 6.11 eranskina.




2) Txosten honek eskaintzen dituen oinarrietatik abiatuta, hainbat egokitzapen egin dira Aldahitzeko Ikerketa Taldetik. G.A egitasmoari begira, ekimena garatuko den udalerrietako talde erdi-antolatuetara jotzea erabaki da, besteak beste, talde hauetan gutxieneko maiztasunak dituzten harremanak daudelako[9].

    - Zehatzak izateko, Aldahitzetik ondorengo lau taldeak proposatu ziren *Ulerrizketa* eta *Eusle* esperientziak garatzeko: eskola ingurua; elkarteak (kirola, musika…); udala; eta taberna eta jatetxeak.

3) Informazio guzti hau berriz, bi dokumentu ezberdinetan landu da[10]. Hauetariko bakoitzean metodologien egiteko eta oinarri garrantzitsuenak daude, Gipuzkoa Ariguneko testuingurura moldatuta[11].

---

[9] Gogoratu metodologietan parte-hartzaileek denbora tarte bat egon behar dutela elkarrekin, proposatutako dinamika aurrera eramateko. *Ulerrizketa*n *ulertzailea* eta *mintzatzailea* egunero 30 minutuz egon behar dira gutxienez, zortzi astetan zehar; *Eusle* metodologian aldiz, eusle rolean ari dena dinamika aurrera eramaten duen taldearekin egon behar da.

[10] Euskarri hauek eranskinetan daude. Zehazki, 6.12 eranskina *Ulerrizketa* metodologiari loturikoa da eta 6.13 berriz, *Eusle* metodologiari dagokiona.

[11] Metodologiaren oinarriak eta baldintzak edota esperientziak abiatzeko eta garatzeko zein hauen irizpideak eduki dira kontutan, besteak beste.




4) Aldi berean, bi metodologietan, esperientziak garatzeko beharrezkoak diren lokalizazio-fitxetan moldaketak egin ziren baita ere, egoera berrira egokitzeko[12].

5) Azkenik, zera aipatu behar da: metodologietan egindako aldaketa hauek Gipuzkoa Arigune ekimenaren baitan gauzatu baldin badira ere, oinarri bat direla egitasmo honetatik kanpo bultzatu daitezkeen gainerako ekintzetarako. Hau da, aldaketa hauen balioa orokorra dela eta metodologien garapen batetaz hitz egin daitekeela.

Honetaz gain, Gipuzkoa Arigune ekimenaren baitan *Eusle* eta *Ulerrizketa* esperientzia pilotuen antolaketan ere aurrera pausuak jazo dira. Taupa Mugimenduak antolatu du udalerri ezberdinetan egin beharreko metodologien lurreratzea[13] eta beraien plangintza mantenduz, harremanetan egon da Aldahitzeko Ikerketa Taldea urtean

[12] Lokalizazio-fitxa hauek eranskinetan daude baita ere, zehazki, 6.14 eranskinean.
[13] Lehenenego, *Uler-saio*en esperientziak bultzatzea aurreikusi dute eta hauen ondoren berriz, *Ulerrizketa* zein *Eusle* esperientziak.

zehar, besteak beste, prestatutako euskarrien zein metodologien gaineko zalantzak argitzen eta esperientziak antolatzeari begira eman diren urratsen jarraipena egiten Taupako lankideek emandako informazioarekin.






# 6 ERANSKINAK

## 6.1 ULERMENAREN NEURKETA *ULER-SAIO*ETAN







## 6.4 ULER-SAIOEN TRINKOTZEA

**ULER-SAIOAK PROZESU OSOA MODU TRINKOAN (120 ordu)**

Antza denez, hainbat enpresatan kezka handia dago Euskal Herri kanpotik etortzen ari diren, eta aurreikuspenen arabera, etorri beharko diren langileen inguruan. Eta kezka hori euskarari dagokionez handia da, izan ere, hainbat enpresatan enpresa osoan, edo enpresaren zati batean, euskaraz funtzionatzeko erabakia hartu dute, zenbait kasutan inplementatu ere bai.

Zer egin daiteke, adibidez, euskara hutsean funtzionatzen duen sail edo batzorde batean euskaraz tutik ez dakien pertsona bat sartzen bada, eta, gainera, pertsona horrek ardura postua badu edo aurrerago izan behar badu? Pertsona horren beharra baldin badago eta enpresan finkatzeko erabakia hartu bada, eta pertsonak berak bertan jarraitzeko hautua egin badu zer egin daiteke?

Pertsona horrek euskara ikastea izan daiteke irtenbide bat, ohiko bideetatik eta ohiko erritmo batean. Euskaltegian A0 mailan hasi eta B1 maila lortu arte (hor kokatzen baita Erabiltzaile independentearen maila, elkarrizketak ulertzeko gaitasuna) 900 ordu behar dira, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma dokumentuan jasotakoaren arabera. Erritmo trinko batean (astean 10 bat ordu) hiru bat urte beharko lituzke maila horretara iristeko.

**Mailak: irakastorduak eta ikastorduak**

| Mailak | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 | Orduak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakastorduak | 125 | 200 | 250 | 350 | 400 | 200 | 1.525 |
| A1 | 125 | | | | | | 125 |
| A2 | | A1+200 | | | | | 325 |
| B1 | | | A2+250 | | | | 575 |
| B2 | | | | B1+350 | | | 925 |
| C1 | | | | | B2+400 | | 1.325 |
| C2 | | | | | | C1+200 | 1.525 |

| Mailak | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 | Orduak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakastorduak | 125 | 200 | 250 | 350 | 400 | 200 | 1.525 |
| Bakarlana eta erabilera askea | 75 | 100 | 150 | 250 | 350 | 500 | 1.425 |
| Orduak guztira | 200 | 300 | 400 | 600 | 750 | 700 | 2.950 |

Beste aukera bat da uler-saioak eskaintzea. Uler-saioetan ulermena baino ez da lantzen, alegia, helburua da euskaraz tutik ez dakien pertsona batek euskara ulertzera iristea, hain zuzen ere, B1 mailaren inguruko ulermen-gaitasuna eskuratzea. 2025. urtearen bukaera aldera, ikerketaren lehen emaitzak jaso ditugu eta badirudi hasierako hipotesia egiaztatu ahal izan dela, alegia, uler-saioak metodologiak barnebiltzen dituen hiru zikloak bukatu dituzten gehienek B1 mailako ulermen gaitasuna eskuratu dutela, 120 ordutan.

2023tik astean lau orduko erritmoan egin izan ditugu ikastaroak, bi orduko saioetan, alegia, astean bi saio. Modu horretan, ikastaroa egiteko gutxi gorabehera ikasturte bat beharko dugu, 30 aste (urritik ekainera). Epea onargarria izan daiteke, baina 30 aste horietan lan-jardunarekin uztartzea benetan zaila da.

Uler-saioen prozesua oraindik gehiago azkartzeko eta lan jardunarekin bateragarri egiteko proposamen hau landu dugu. Proposamenaren arabera, astean 20 orduko saioak izango genituzke, egunero lau ordu, sei astetan bukatuko genuke 120 orduko ikastaroa. Prozesua egingarri izateko, gure ustez ikastaroa egin behar duten pertsona horiek sei aste horietan gehiago edo gutxiago, baina lan-jarduna doitu beharko litzateke, ez baita egokia euskara ikasteko prozesu batean murgiltzeko prestutasuna eta interesa izan eta erabakia gauzatu ondoren lan-jardun bukaezinak eginaraztea.

Gainera, garrantzitsua da, euskararen ulermena garatu behar duten horien ingurune hurbilaren gaineko ezagutza zehatza eskuratzea eta hasiera-hasieratik jakitea prozesuaren bukaeran zeintzuk izango diren bere mintzatzaileak. Uler-saioen metodologiaren bukaeran (uler-saioak 3 ikastaroaren azken 20 orduetan) ulertzaileen ingurune hurbileko euskaldunak (mintzatzaileak) saioetara gonbidatzen ditugu euskara ulertzeko prozesuan bete-betean inplikatzeko eta ulertzailea euskararen erabilera errealean trebatzeko.

Formazio orduez ari gara, edozein ikas-prozesutan orduak inbertitu behar dira, beti, baina eraginkorragoa izango da ahalik eta azkarren eginez gero, badakigu zer erraza den arazoak sortzea, bestelako eginbeharrak izatea edo ezusteei eutsi behar izatea. Sei aste, hasi eta buka.

Antolaketari dagokionez, trebatzailearentzat uler-saioak lau ordu jarraian ematea exijentea da oso, kontuan izan behar dugu trebatzailearen funtsezko eginkizuna dela ulertzaileei ahalik eta input ulergarri gehien ematea, hitz egitea, alegia, eta ordu asko dira etengabe aritzeko. Hori dela eta bi trebatzaile izatea proposatuko dugu, lau orduko saioak bitan banatuta.

Horrek ekarriko du trebatzaileen arteko koordinazioa areagotzea, batez ere uler-saioak 2 zikloko 41. Ordutik aurrera. Izan ere hortik aurrera ez dago programazio itxirik eta hainbat material egunero-egunero bilatu eta landu beharko da saioan erabili ahal izateko: albisteak, eguraldia, karteldegia, bideoak, efemerideak...

Lerro hauetan azaldu duguna proposamen bat da, ez dugu probatu eta ez dakigu bestelako zailtasunik sor ote daitezkeen: ulertzaileen asimilatzeko abiaduran, motibazioan edo bestelakoetan.

Gainera, astean 20 orduko erritmoaz ari gara. Erritmo hori are eta azkarragoa izan liteke? Astean 30 orduko erritmo bat egingarri izan liteke? Eta enpresa munduaz aritu gara, baina formazio-ikastaro moduan ere inplementatu liteke (parte hartzaileen lehen kontaktua

## 6.5 2024-2025EKO ESPERIENTZIEN GARAPENA



### *ULER-SAIOAK* METODOLOGIA

### 2024-2025eko esperientzien garapenari buruzko nondik norako nagusiak

1. SARRERA

*Uler-saioak* metodologia euskaraz batere ez dakiten edo oso gutxi ulertzen duten kideek, komunikazio naturalaren bidez, euskararen ulermena garatzeko diseinatutako metodologia da, eta momentuz esperimentazio eta ikerketa fasean dago.

Helburua da norbanakoek ahalik eta eperik laburrenean euskara ulertzeko gaitasuna eskuratzea, euskarazko harremanetan (ele biko elkarrizketen formatuan bederen) murgiltzeko aukera izan dezaten, kalean, lanean eta ingurune naturaletan.

Metodologia ingurune babestu batean garatzen da: gela batean, ordutegi baten barruan eta hizkuntza-soslai bera duten beste kide batzuekin batera. Bertan, irakasle (trebatzaile) batek euskarazko input ulergarri ugari ematen die kideei (ulertzaileei).

Uler-saioak metodologia.
Zikloak, eskola-orduak eta hasierako/amaierako ulermen-mailak euskaraz

| | Metodologiaren zikloak | Eskola-orduak | UM-has | UM-buk |
|---|---|---|---|---|
| Uler-saioak metodologia | Uler-saioak 1 | 30 | A0 | A1 |
| | Uler-saioak 2 | 30 | A1 | A2 |
| | Uler-saioak 3 | 60 | A2 | B1 |
| | | 120 | | |

- [UM-has]: euskaraz ahozkoaren ulermenean ikasleen maila, hasieran.
- [UM-buk]: euskaraz ahozkoaren ulermenean ikasleen maila, bukaeran.

Txosten honetan jaso ditugu 2024-2025ean egindako esperientzien garapenaren nondik norako nagusiak.





2. ESPERIENTZIEN IKERKETA-HELBURUAK

1. *Uler-saioak* metodologiaren bidez, ikasleek euskarazko ahozko ulermenean aurreikusitako ulermen-maila eskuratu dutela egiaztatzea:

   a) *Uler-saioak 1:* A1 inguruko ulermen-maila eskuratu duten aztertzea

   b) *Uler-saioak 2*: A2 inguruko ulermen-maila eskuratu duten aztertzea

   c) *Uler-saioak 3*: B1 inguruko ulermen-maila eskuratu duten aztertzea

2. Esperientzien ezaugarrien arabera ikasleen ulermen-aurrerapenak zer nola aldatzen diren aztertzea.

3. Esperientziaren balorazio kualitatiboa ezagutzea.

3. 2024-2025eko ESPERIENTZIEN DATU OROKORRAK

2024-2025 ikasturtean, 10 gunetan egin ditugu esperientziak. Honako hauek dira datu orokorrak:

| US 1 | Guneak | | Ulertzaile-kopurua | Orduak | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Garbera | Merkatariak | 5 | 30 | Aurrez aurre |
| 2 | Grupo SSI | Zaintza | 12 | 30 | Aurrez aurre |
| 3 | Errenteriako Udal Euskaltegia (A) | Gurasoak Etorri berriak | 9 | 30 | Aurrez aurre |
| 4 | Errenteriako Udal Euskaltegia (B) | | 6 | 30 | Aurrez aurre |
| Guztira | 4 | | 32 | | |





| US 2 | Guneak | | Ulertzaile-kopurua | Orduak | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Errenteriako Udal Euskaltegia (A) | Gurasoak Etorri berriak | 9 | 30 | Aurrez aurre |
| 2 | Errenteriako Udal Euskaltegia (B) | | 6 | 30 | Aurrez aurre |
| 3 | Iruñerriko Mintzakide | Mintzakide | 5 | 30 | Aurrez aurre |
| Guztira | 3 | | 20 | | |

| US 3 | Guneak | | Ulertzaile-kopurua | Orduak | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | CAF Beasain | Industria | 8 | 60 | Aurrez aurre |
| 2 | Danobatgroup | Industria | 5 | 60 | Online |
| 3 | Badalab (Koldokide) | Gurasoak | 5 | 60 | Aurrez aurre |
| 4 | Badalab (SOS arrazakeria) | Migrazioa | 7 | 60 | Aurrez aurre |
| 5 | EJIE | Informatika | 6 | 60 | Online |
| Guztira | 5 | | 31 | | |

4. ULERTZAILEEN ULERMENAREN EBALUAZIOA

2024-2025eko esperientzietan, ulertzaileen ulermenaren aurrerapena neurtzeko hiru bide erabiltzea adostu dugu:

1. Entzumen-probak.
2. HEOC ebaluazioa.
3. Uler-konpetentziak.

Jarraian jaso ditugu ziklo bakoitzeko emaitzen datu orokorrak:

## 6.6 *ULER-SAIOAK* METODOLOGIA. 2023-2024 IKERKETA



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2025eko abendua

ALDAHITZ IKERKETA

Uler-saioak metodologia. 2023-2024 ikasturteko esperientzien irakaspenak





Aurkibidea



## 6.7 SISTEMA INTEGRALA. *ULER-SAIOAK 3* ETA *ULERRIZKETA*REN ARTEKO LOTURA.



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2025eko azaroa

SISTEMA INTEGRALA
*Uler-saioak 3* eta *Ulerrizketaren* arteko lotura

2024-2025eko esperientziak

Aldahitz Ikerketa Taldea



Sistema Integrala. *ULS3* eta Ulerrizketaren arteko lotura

Aurkibidea

1 Sarrera ... 5
2 Ikerketaren testuingurua ... 7
2.1 *Uler-saioak 3 (ULS3)* ... 7
2.1.1 *Uler-saioak 3*tik, *Ulerrizketa*rako jauziaz ... 8
2.2 *Ulerrizketaz* ... 9
2.2.1 Sarrera ... 9
2.2.2 Esperientzia baten ezaugarri nagusien laburpena ... 10
2.2.3 Prozesuaren baldintza nagusiak ... 11
2.3 2. Atalaren laburpena ... 13
2.3.1 *Uler-saioen* eta *Ulerrizketa*ren arteko alde nagusiak ... 13
2.3.2 *Ulerrizketa*ren lau atal edo funtzio nagusiak ... 13
2.3.3 *Ulerrizketan ulertzaileak* barneratu beharreko trebetasunak ... 14
2.3.4 *Ulerrizketan mintzatzaileak* barneratu beharreko trebetasunak ... 15
3 Ikerketaren helburuak ... 17
4 Datuen bilketa eta tresnak ... 19
5 Unibertso osoa eta bajak ... 23
5.1 EDE Fundazioa ... 23
5.2 Badalab (Errenteria) ... 23
5.3 *Euskaraldi Indartua* (Errenteria) ... 24
6 Kasuen azterketak ... 25
6.1 Ede Fundazioa ... 25
6.1.1 1. Esperientzia ... 25
6.1.2 2. Esperientzia ... 28
6.1.3 3.Esperientzia ... 31
6.2 Badalab ... 34
6.2.1 Esperientziak ... 34
6.2.2 Kasuaren azterketa ... 38
6.3 *Euskaraldi Indartua* ... 41
6.3.1 Testuingurua ... 41
6.3.2 Formazio saioa ... 43
6.3.3 Esperientzia, balorazioa eta ondorioak ... 44
7 Ondorioak eta aurrera begirako proposamenak ... 47
8 Eranskinak ... 51
8.1 1. Eranskina. Aukeren fitxa. ... 51



Sistema Integrala. *ULS3* eta Ulerrizketaren arteko lotura

8.2 2. Eranskina. Formazio txosten laburra. ... 53
8.3 3. Eranskina. Asteroko fitxa. ... 54
8.4 4. Eranskina. *Ulertzailea*ren balorazio fitxa. ... 55
8.5 5. Eranskina. *Mintzatzailea*ren balorazio fitxa. ... 56
8.6 6. Eranskina. Ebaluazio bileraren gidoia. ... 57
8.7 7. Eranskina. Ebaluazio txostena. ... 58
8.8 8. Eranskina. Errenteriako taldeak. *Ulerrizketa* nola? aukerak eta proposamena ... 61
8.9 9. Eranskina. Formazio-saioaren gidoia ... 65

## 6.8 SISTEMA INTEGRALAREN DEFINIZIOA


SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2025eko abendua

SISTEMA INTEGRALA
Hizkuntzen erabilera askerako metodologia

Aldahitzeko Ikerketa Taldea


SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Aurkibidea


1 Sarrera eta helburuak ..... 2
2 Eskema nagusia ..... 4
2.1 Diseinuaren kokapen orokorra ..... 4
2.2 Proposamen metodologikoaren euskarri nagusiak ..... 5
2.3 Etapa nagusiak ..... 6
2.3.1 Etapen azalpen xehea ..... 8
2.3.2 Kronograma ..... 13




## Aldahitz-eko "Sistema integrala"; ideia edo ipar modura hainbat urtez

- Hiru metodologiekin lanean, banaka
- 2017, 2018az geroztik, Aldahitz barne mailan




- 2024, lehen urratsa: Uler-saioak >> Ulerrizketa lotura
- 2025, "Sistema integrala", definizioa eta lehen prototipoa

## Helburua eta izena

- Bi helburu
  - Hizkuntzen erabilera askerako espazioa sortzea
  - Euskaraz hitz egin nahi duenak eroso egiteko baldintzak sortzea
  - [definitzen]
- Izena
  - Sistema (3 metodologiak)
  - "Aldahitz sistema". "Hirusta sistema"; "Hiruki sistema"; "Hiru elkarrekin sistema"...
  - [definitzen]

## Lehen prototipoa

- Esperimentala
- Ikerketako arreta, hainbat elementutan
  - Teknikoak (metodologiak egoki garatzea...), kolektiboak (kutsatzeak, dinamikak...), prozesuak...
  - [Definitzen]
- Lehen probetarako hautua:
  - Erakundea (enpresa)
  - 100 lagun
  - Euskaldunak %70 inguru. %30, erdaldun + zailtasun

## Ezaugarri nagusiak (I)

- Kolaboratiboa
- Borondate kolektiboan oinarritua
  - "Askea". Gaztelania erabiltzeko aukera
- Euskaldunak eta erdaldunak, batera
  - Nork eman lehen pausoa? Biek!
- Sailak, subjektu kolektibo nagusi
  - Erakundera egokituta, baina operatibo eta funtzional
  - Malgu, baina erakunde osoa batera
  - Gehiengo kualifikatua (%75). 6 aldiz prozesu osoan
  - Dimentsioa eta eragina, sailen %-aren arabera

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Ezaugarri nagusiak (II)

- Egingarritasuna
  - "Hirugarrenik ez, eta buelta"
- "Jardutearen atsegina"
  - Erronka lorgarrien oreka. Prozesuak.
- Komunikazioa eta erabakitzea
  - [Definitzen]
- Lorpenak baloratzeko sistema
  - [Definitzen]
- Baliabideak
  - Trebatzaileak. Uler-saioen denbora. Ulerrizketa formazioak
  - Kontratazio politika (konpromisoa; eremu "trinko")

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Garapena. Etapak eta urratsak (I)

| Etapak | Deskribapena | Denbora | Urratsak | Denbora | Oharra |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. etapa** | *Marko orokorraren onarpena.* | Hilabete bat | | 6-8 aste | |
| | | | 1. Urratsa<br>Erabaki estrategikoa zuzendaritza taldean | | |
| | | | 2. urratsa<br>Erabaki estrategikoa berrestea sailetan | | |
| **2. etapa** | *Oinarrizko prestaketa operatiboa.* | Bi hilabete | | 8 aste | |
| | | | 3. urratsa<br>Koordinazio Batzordea osatu eta Uler-saioak eta Ulerrizketa "dastatze saioak" | | Batzordea eratzen da |
| | | | 4. urratsa<br>Erabaki operatiboak sailetan | | |

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Garapena. Etapak eta urratsak (II)

| Etapak | Deskribapena | Denbora | Urratsak | Denbora | Oharra |
|---|---|---|---|---|---|
| **3. etapa** | *Uler-saioak eta Ulerrizketa metodologien abiatzea.* | Lau hilabete | | 5 hilabete | (4 hil + 6. Urratserako 4 aste). 20 aste. |
| | | | 5. urratsa<br>Uler-saioak eta Ulerrizketa metodologien abiatzea | | |
| | | | 6. urratsa<br>Geldialdia, balantzea egiteko eta erabaki berria hartzeko | | Balantzea eta hurrengo etapa abiatzeko erabakia hartu |
| **4. etapa** | *Aurreko metodologien zabaltzea.* | Sei hilabete | | 7 hilabete | (6 hil + 8. Urratserako 4 aste) |
| | | | 7. urratsa<br>Aurreko metodologien zabaltzea | | |
| | | | 8. urratsa<br>Geldialdia, balantzea egiteko eta erabakia hartzeko | | Balantzea eta hurrengo etapa abiatzeko erabakia hartu |

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Garapena. Etapak eta urratsak (III)

| Etapak | Deskribapena | Denbora | Urratsak | Denbora | Oharra |
|---|---|---|---|---|---|
| **5. etapa** | *Eusle metodologiaren "dastatze saioa".* | Hilabete bat | | Hilabete 1 | |
| | | | 9. urratsa<br>Eusle metodologia "dastatze saioak" | | |
| | | | 10. urratsa<br>Geldialdia, balantzea egiteko eta erabakia hartzeko | | Balantzea eta hurrengo etapa abiatzeko erabakia hartu |
| **6. etapa** | *Eusle metodologiaren esperientzia sakona.* | Bi hilabete | | 2 hilabete | |
| | | | 11. urratsa<br>Eusle metodologiaren esperientzia sakonak | | |
| | | | 12. urratsa<br>Geldialdia, balantzea egiteko eta erabakia hartzeko | | Balantzea eta hurrengo etapa abiatzeko erabakia hartu |




| Etapak | Deskribapena | Denbora | Urratsak | Denbora | Oharra |
|---|---|---|---|---|---|
| **7. etapa** | *Euskararen esperientzia normalizatuaren saio orokorra.* | Bi hilabete | | 2 hilabete | |
| | | | 13. urratsa Euskararen esperientzia normalizatuaren saio orokorra | | |
| | | | 14. urratsa Geldialdia eta azken balantzea | | Geldialdia eta azken balantzea |
| **8. etapa** | *Ondorengo jarraipena.* | | | | |
| | | | 15. urratsa Urte erdira hizkuntza egoerari pultsua hartu | Urte erdira | |
| | | | 16. urratsa Urte betera hizkuntza egoerari pultsua hartu | Urte betera | |









## 6.9 GIPUZKOA ARIGUNEN EGINIKO BI EKARPEN









SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Uler-saioak esperientzien antolaketa 2024-2025

- **Trebatzaileak – esperientzien antolaketarako urratsak**

| Izen-abizenak | Erakundea | Lokalizazio fitxa | Gunea | Hasiera data |
|---|---|---|---|---|
| 1. Inaxio Usarralde Arantzadi | Emun aholkularitza | Bidali gabe | | |
| 2. Onintza Olaizola Aristi | Euskaltzaleen Topagunea | **Bidalita** | | |
| 3. Emma Arrizabalaga Hernandez | Nafarroako Euskaltzaleen Topagunea | **Bidalita eta jasota** | Iruñerriko Mintzakide | Martxoa erdialdean |
| 4. Oihana San Jose Garmendia | AEK | Bidali gabe | Gipuzkoa Arigune (Añorga) | |
| 5. Nadhet Arruti Roteta | AEK | Bidali gabe | Gipuzkoa Arigune (Aia) | |
| 6. Maria Angeles Alberdi Mendizabal | Errenteriako Udal Euskaltegia | **Bidalita eta jasota** | Errenteriako Biteri Eskola eta Errenteriako Euskaltegia | Otsailaren erdialdetik aurrera |
| 7. Goizane Arana Arexolaleiba | Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea | Bidali gabe | | |
| 8. Jone Igartua Fernandez | Debagoineko AEK (??) | Bidali gabe | Gipuzkoa Arigune (Antzuola) | |
| 9. Maialen Rodriguez Barcena | AEK | Bidali gabe | Gipuzkoa Arigune | |

- Interesa duten beste erakundeak:
  - Pasaiako Udala, Donostiako Udala, Zumaiako Udala, Oiartzungo Udala

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Euskarara hurbiltzea Ikerketa 2025 eta 2026

- **Euskaraz ez dakiten pertsonak** (eta jakin nahi ez dutenak?)

- "Euskaltegietan matrikulatu ez diren herritar helduen arrazoiak" (HABE)
  - Inplikazioak Gipuzkoa arigunera begira
  - Ikerketaren lanketa. Mintegia?
- Beste ikerketa eta erreferentziak
  - Topagunea "Gero eta aldeko gehiago" (Tejiendo alianzas) (2024)
  - …

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Euskarara hurbiltzea Ikerketa 2025 eta 2026

- A aukera
  - Euskaraz ahozko ulermenik ez >> (Uler-saioak 1, 2, 3) B1 inguruko ahozko ulermena >> ulertzeko gaitasun hori praktikatzen hasi, inguruko harreman naturaletan (ele biko elkarrizketak, *Ulerrizketa*…)
  - PROZESU horien nondik norakoak, gakoak… + Prozesu horietan hiztunen bizipenak eta prozesu horiek *zer eman dieten*
  - Euskara ulertzen ez duten herritarren azterketan ez sartu
- Ikerketa-plana definitzen
  - Dimentsioa eta talde teknikoa; metodologia eta lotura Uler-saioak 2024-2025 esperientziekin; bi urteko plana hobeto definitu eta 2025eko lanak planifikatu
  - (aldi berean) Martxan diren Uler-saioak esperientzien datu-jasoketen aukerak (EJIE, Errenteriako 2 esperientziak, CAF…)

## 6.10 *ULER-SAIOAK* ESPERIENTZIEN ANTOLAKETARAKO IRIZPIDEAK (2024-2025)









Aldahitz IKERKETA ULER-SAIOAK METODOLOGIA

## Partaideen eta taldeen ezaugarriak

- A0-A2 bitarteko ulermen-maila.
- Talde homogeneoak (maila antzekoa)
- Hizkuntza komuna gaztelera
- Hiztun alfabetatuak
- Kide kopurua: gutxienez 4, gehienez 12
- Egoera egonkorra: inguru hurbila osatzen duten taldeak

*Uler-saioak metodologia.*
*Urratsak, eskola-orduak eta hasierako/amaierako ulermen-mailak euskaraz*

| | Metodologiaren hiru urratsak | Eskola-orduak | UM-has | UM-buk |
|---|---|---|---|---|
| Uler-saioak metodologia | Uler-saioak 1 | 30 | 0 | A1 |
| | Uler-saioak 2 | 30 | A1 | A2 |
| | Uler-saioak 3 | 60 | A2 | B1 |
| | | 120 | | |

- [UM-has]: euskaraz ahozkoaren ulermenean ikasleen maila, hasieran
- [UM-buk]: euskaraz ahozkoaren ulermenean ikasleen maila, bukaeran

Aldahitz IKERKETA ULER-SAIOAK METODOLOGIA

## Lan-dinamika

- Esperientziak aurrez aurre
- Astean bi orduko bi saio (edo gutxienez 1,5 erdiko bi saio)
- Ordu guztiak jarraian (ziklo bat amaitu arte, edo ziklo guztiak jarraian amaitu arte)
- Asistentzia ezinbestekoa
- Hasieratik argi adierazi, ez direla ohiko eskola arruntak izango

Aldahitz IKERKETA ULER-SAIOAK METODOLOGIA

## Taldeak osatzeko eman beharreko urratsak (guneko ardunak egin beharrekoak)

**LOKALIZAZIOA**

1. **Lokalizazio-fitxa** bete: talde bat izan daitekeenaren fitxa osatuko du guneko arduradunak (balizko partaideei informazioa eskatu gabe), eta Aldahitz Ikerketa Taldeari helaraziko dio.
2. Balizko partaideekin bilera egingo du guneko arduradunak: azalpena emateko **aurkezpen-dokumentua** hartuko du oinarri.
3. Interesa dutenei **ulermen-proba pasako** die (paperean edo **online**) guneko arduradunak, eta **emaitzak** Aldahitz Ikerketa Taldeari helaraziko dizkio.
4. **Izen-emate fitxa betetzeko** eskatuko die guneko arduradunak partaideei.

Aldahitz IKERKETA ULER-SAIOAK METODOLOGIA

## Taldeak osatzeko eman beharreko urratsak

**TREBATZAILEAK IDENTIFIKATU**

1. Aldahitz Ikerketa Taldeak trebatzailea identifikatuko du, eta trebatzailea eta guneko arduraduna harremanetan jarriko ditu saioen egutegia, lekua … antolatzeko.
2. Behin egutegia adostuta, **esperientziaren fitxa beteko** du guneko arduradunak
3. Aditu-taldeko kide bat izendatuko dugu esperientziaren jarraipena egiteko.

Aldahitz IKERKETA ULER-SAIOAK METODOLOGIA

## Materiala

- Lokalizazio-fitxa
- Aurkezpen-dokumentua
- Mailaketa-proba:
  - Audioak
  - Enuntziatuak (online egitea hobetsiko dugu)
  - Emaitzak biltzeko fitxa
- Izen-emate fitxa
- Esperientzien fitxa

Aldahitz IKERKETA ULER-SAIOAK METODOLOGIA

**Zuzendaria:** Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)
**Ikerlaria:** Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)
**Aholkularia:** Pello Jauregi Etxaniz (UPV/EHU)

**Proiektuan partaide:**

ahize, emun, artez, elhuyar

**Proiektuan partaide eta babesle:**

Gobierno de Navarra, Nafarroako Gobernua

**Proiektua lankidetzan:**

EquiLing, HADE



# 6.11 HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETAK. ARABAKO LAUTADAN. 2021[14].


SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

2021eko maiatza

HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETA PROZESUAK EREMU AFEKTIBOAN

Proba pilotuak Arabako Lautadan

Ondorioen txostena


Proiektu Taldea:

Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea) – Zuzendaritza

Asier Lafuente (Lautadako Euskararen Komunitatea) – Tokiko kudeaketa eta harremanak

Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra) – Ikertari eta teknikari

Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra) – Ikertari eta teknikari

Babesleak:

Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Arabako Foru Aldundia

Arabako Lautadako Kuadrilla

www.soziolinguistika.eus 1


Aurkibidea

1 SARRERA ... 3
2 HELBURUA ... 4
3 PROBA PILOTUEN PROZESUA ... 4
3.1 Proiektua definitu eta diseinatu ... 4
3.2 Metodologia egokitzapena landu ... 5
3.3 Lokalizazioa eta kontaktua ... 5
3.4 Aurkezpenak eta formazioa ... 5
3.5 Esperientzia pilotuak ... 5
3.6 Itxiera, komunikazioa eta behin-behineko balorazioak ... 6
3.7 Azken datu-bilketa ... 6
3.8 Datuen azterketa eta emaitzen txostena ... 7
4 METODOLOGIA ... 7
4.1 *Eusle* metodologia – lagun taldeak ... 7
4.2 *Ulerrizketa* metodologia – Bikoteak ... 11
4.3 *Ulerrizketa* metodologia – lagun taldeak ... 12
5 EMAITZEN AZTERKETA ... 13
5.1 *Ulerrizketa* metodologia – BIKOTEAK ... 13
5.2 *Eusle* metodologia – LAGUN TALDEAK ... 27
6 ONDORIO NAGUSIAK ... 32
6.1 *Ulerrizketa* metodologia – BIKOTEAK ... 32
6.2 *Eusle* metodologia – LAGUN TALDEAK ... 33
7 AURRERA BEGIRAKOAK ... 36

www.soziolinguistika.eus 2

[14] Memorian zehar aipatu den arren, gogorarazi behar da txosten hau ez dela 2025ean sortu, 2021ean baizik. Gipuzkoa Ariguneri begira *Eusle* zein *Ulerrizketa* metodologien gaineko lanketa egiteko funtsezko dokumentu bilakatu zen eta honegatik jarri da eranskinetan, Memorian zehar aipatzen delako besteak beste.

# 6. *12 ULERRIZKETA* METODOLOGIA. MATERIAL BERRITUA.












## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***1.- Euskara-gaitasun altuko hiztunen eta gaitasun ertaineko hiztunen arteko euskarazko komunikazioa***

Kide bakoitzari hizkuntza-soslai bana eskatzen zaio, alegia, ahozko gaitasuna hartzen da soilik kontutan: entzumena eta mintzamena (irakurmena edota idazmena aldiz, ez dira aintzat hartzen). Sarreran aipatu denez, ***mintzatzaileak*** C1 inguruko maila edukiko du mintzamenean -erreferentzia estandarra erabilita- eta ***ulertzaileak*** aldiz, B1 ingurukoa ulermenean.

***2.- Ingurune naturaletan gertatzen dena***

***Ulerrizketa*** metodologia ingurune naturaletan garatzen da eta ez ingurune babestuetan. Hau da, ***mintzatzailea*** eta ***ulertzailea*** ez dira nahita biltzen toki berezitan, finkatutako ordutegi batean, hizkuntza-soslai bera duten beste pertsona batzuekin, dinamizatzaile edo irakasle baten laguntzaz, eta hizkuntza-praktika bideratua egiteko asmoz. Kontrara, ***Ulerrizketa*** metodologia ingurune naturaletan egiten da, beraien eguneroko harremanen baitan: erakundean, kirol-elkartean, lagunartean, familian, lantegian… Hortaz, egunerokoari dagokionez, solaskideak ez dira aldatzen, funtzionamendu errutinak ez dira aldatzen, komunikazio gaiak ez dira aldatzen, taldearen dinamika ez da aldatzen, proposatzen den aldaketa-prozesua harreman horren baitan gertatzen delako (ez egoera berri batean).

Aldatzen den bakarra –eta ez da gutxi, alajaina- ***mintzatzailearen*** eta ***ulertzailearen*** arteko hizkuntza-jokaera da. Hau da, hizkuntza-ohituren aldaketa baterako hasiera planteatzen da eta jokaera hori *ulerrizketa-konpetentzien* bueltan gertatzen da. Eguneroko ingurune naturalean jardun behar dute, baina hizkuntza-estrategia eta jokaera jakin batzuk zainduz. Jokaera horiek ***mintzatzailearen*** eta ***ulertzailearen*** aurrez aurreko harremanari besterik ez zaizkio aplikatzen. Elkarrizketan, haiez gain, kide gehiago daudenean, jarduleen esku gelditzen da jokaera horiek mantentzea, edo ez.

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***3.- Ele biko elkarrizketak maiz dituena***

***Ulerrizketan*** maiz gertatzen dira *ele biko elkarrizketak* ***mintzatzaile*** eta ***ulertzaileen*** artean, eta hori da, hain zuzen harremanean euskarari leku bat egiten hasteko proposatzen den bidea.

***Ulerrizketak ulertzaileari*** eskatzen dio elkarrekintzan aktibo jardutea, euskaraz ulertzen duena konprobatzea, elkarrizketari jarraipena emanaz. Konprobazio hori, ***ulertzaileak*** normalean gaztelaniaz egingo du. Hala, ***mintzatzaileak*** gehienetan euskaraz arituta eta ***ulertzaileak*** elkarrizketa gaztelaniaz jarraituta, maiz gertatzen dira *ele biko elkarrizketak*. Hain zuzen, ***Ulerrizketan*** ongi aritzeko lehen urratsetako bat da *ele biko* dinamika horretara ohitzea eta horretan pixkanaka eroso sentitzen joatea (horretan trebatzea, elkarrekin).

Euskaraz ulertutakoa konprobatzea eta elkarrizketa jarraitzea ***ulertzaileak*** gaztelaniaz egingo du (hasieran, batez ere), baina euskaraz ere egin dezake, adierazi nahi duena euskaraz esateko gai den kasuetan. Bada horretan, ordea, kontuan hartu beharreko arrisku bat: hasieratik guztia euskaraz esaten saiatzea. Euskara ulertzeko "tarteko" gaitasuna duen kide batek (B1 ingurukoa), hitz egitekoa normalean baxuagoa izango du. Gaitasun horrekin guztia euskaraz adierazten saiatzeak normalean komunikazioa asko mantsotuko du, eta tentsioa handitu. Eta, ***Ulerrizketan*** ongi aritzeko, beharrezkoa da komunikazioak gutxieneko jario bat izatea, ez gehiegi mantsotzea. Hala, ***ulertzaileak*** erregulatuko du euskaraz zenbat eta noiz egin, baina ideia da erraz samar adierazi dezakeena esatea euskaraz, eta gainerakoa gaztelaniaz.

***Ulerrizketaren*** proposamena da komunikazio estilo bat barneratzea, non ***mintzatzaileak*** harreman naturalean nagusiki euskaraz egiten dion, ***ulertzaileak*** euskaraz ulertu, konprobatu eta eskatu egiten duelako, eta bien artean dinamika hori posible egiten duen giro egoki bat sortu dutelako, eta aldiro zaintzen dutelako. Modu horretan, ***ulertzailearen*** euskarazko ulermenak aurrera egiten du egunez egun eta, jardun ahala, baita hitz egiteko gaitasunak ere.

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***(3.- Ele biko elkarrizketak maiz dituena)***

***Mintzatzaileari*** dagokionez, metodologia honek proposatzen du ***ulertzaileari*** "nagusiki" edo "gehienetan" euskaraz egitea. Ez beti, baina bai nagusiki. Beraz, "baimendu" egiten du ***mintzatzaileak*** noizean behin erdaraz egitea, gehiegizko presioa, blokeoak eta halakoak ekiditeko. Funtsean, ***mintzatzaileak***, euskaraz egiteagatik egoerak neurriz kanpoko ahalegina eskatuko duela uste duenean erdara erabili dezake larrialdietarako irtenbide gisa. Ezinbestekoa da, dena den, behin gazteleraz esan beharrekoa esanda, euskarara itzultzea.

***Ulerrizketa saio baten adibidea***

(Mintz.) Bihar lantokiko afaria dugu Bergarako jatetxe batean.
(Ulertz.) A zer ongi!, Beno, edo ez. ¿Tienes ganas de ir?
(Mintz.) Egia esan, ez nago gogo handiarekin. Azken bolada honetan giro txarra daukagu lantokian.
(Ulertz.) ¿Pero el mal ambiente es general, o sólo con algunas personas en concreto?
(Mintz.) Pertsona bakar batek sortu du giro txarra, baina ardura handia du lantokian eta jende askori eragiten dio.
(Ulertz.) Ahh, pertsona bat da baina garrantzitsua. Zergatik giro txarra?
(Mintz.) Orain dela gutxi sartu da, eta lan egiteko oso modu zorrotzak ditu. Jendearekin hitz egin baino gehiago, agindu egiten du.
(Ulertz.) Ya, a la gente no le gusta ese modo autoritario. Pues nada, chica, animo eta ondo pasa!!
(Mintz.) Saiatuko gara bai, eskerrik asko zure animoengatik.
(Ulertz.) Ez horregatik!!

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***4.- Hizkera egokitua erabiltzen duena***

Hizkera egokitzea ***mintzatzaileari*** dagokio funtsean eta "euskara ulergarria erabiltzea" esaten diogu horri. Berari dagokio hizkuntza-bitartekoak ***ulertzailearen*** hizkuntza-gaitasunera moldatzea. Baina zeregin horretan huts egiten duenean, ***ulertzaileak*** berak hartu behar du lema, eta argi eta garbi eskatu ***mintzatzaileari*** hizkeran zein moldaketa egin behar dituen hobeto ulertu ahal izateko (azkarregi hitz egiten duela, hitzak garbi ahoskatzeko, hizkera bateko hitzak erabiltzen dituela…). Ekimena hartu behar du eta ***mintzatzaileari*** eskatu "zer behar duen hobeto ulertzeko".

Garrantzitsuena bi aldeek kezka eta ardura izatea da, hizkera behar bezala *sintonizatzeko*, horrek ekarriko baitu komunikazioaren jarioa. Hauek dira ***mintzatzaileak*** dituen bitarteko batzuk hizkera egokitua erabiltzeko:

1) Polikiago hitz egitea (dena dela, silabaz silaba ere -"bi-har e-to-rri-ko ga-ra"-, gehiegikeriatzat joko genuke, hain zuzen, halako modua urruntzen delako komunikazio erritmo naturaletik eta behar den gutxieneko jariotik).
2) Argiago ahoskatzea.
3) Hitz errazagoak erabili (sinonimoak etab.).
4) Esaldi laburragoak egin.
5) Sinpleago esatea (esaldi motzen kateamendu luzea etab.).

Alegia, ***mintzatzaileak*** euskara ulergarria erabili behar du, eta ***ulertzaileak*** bere aldetik konprobatu egin behar du ulertutakoa. Ulertzen ez duenean, egokitzeko edo errazteko eskatu behar du.

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***5.- Jokaera egiaztatzeilea erabiltzen duena***

Solaskideak elkarrekiko hizkuntza-konfiantza eraikitzen ari diren bitartean, ***ulertzaileak*** ulertzeak adinako garrantzia du ***mintzatzailea*** ziur egoteak ***ulertzailea*** ongi ulertzen ari zaiola ❒. Estrategia ona da, beraz, jarduleek tarteka ziurtatzea elkarri ongi ulertzen ari ote zaizkion. Ongi ulertzen ari direla egiaztatuz gero, komunikazioak aurrera jarrai dezake sendotasunez, jarduleek elkarrekiko konfiantza bildu dutelako, komunikazioan bat eginda sumatuta. Gaizki ulertzen ari direla konturatuz gero, aukera dute komunikazio-arazoak konpontzeko, eta berriz komunikazio hariari ziurtasunez heltzeko.

***Ulerrizketan***, funtsezkoa da ulertutakoa egiaztatzea, hasieran batez ere, elkarri neurria hartu arte (*sintonizatu*), eta bi aldeak komunikazio mota honen berezitasunetara ohitu arte.

Nekez egingo du aurrera euskarazko komunikazioak, baldin ***mintzatzaileak*** zalantzak baditu ***ulertzailearen*** ulertzeko gaitasunaz, edota, atzekoz aurrera ere, ***ulertzaileak*** zalantzak baditu bere ulertzeko gaitasunaz ***mintzatzailearekin*** jarduterakoan. Zalantza horiek guztiak uxatzeko ez dago ulertutakoa egiaztatzea bezalakorik. Komunikazio-egoeraren diagnostiko errealista egiten laguntzen du.

Behin komunikazioaren etxearen zutabeak finkatuz gero, saretu edo tartekatu egin daiteke egiaztatze jokaera, inoiz guztiz desagertuko ez den arren. Egiaztatze jokaera, orduan, une zehatzetan baizik ez dute erabiliko jarduleek, beharrak hala eskatuta.

- ❒ Modu batera edo bestera, *Ulerrizketa-n* ongi aritzeko beharrezkoa da bi aldeek ziurtasun sentsazio hori izatera iristea, eta hori ongi zaintzea. Horretarako, *ulertzaile* < > *mintzatzaile* konbinaketa bakoitzak bilatuko du berarentzat egokiena den modua. Ziurtasun sentsazio hori lortu ezean, kontuan hartuta euskara hizkuntza sozialki gutxitua dela, bi hiztunak ongi moldatzen direla gaztelaniaz, eta ordura arteko euren harremana hizkuntza horretan zela, oso zaila izango da harreman horretan euskarazko jarduna lekua irabazten joatea.

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***Jokaera egiaztatzailearen adibidea***

(Mintz.) Gaur arratsalderako eguraldi kaxkarra iragarri dute.
(Ulertz.) Ah, que a la tarde viene mal tiempo, ¿no?
(Mintz.) Bai, txarra baino txarragoa. Haize bolada handiak etorriko dira.
(Ulertz.) O sea, haize asko…
(Mintz.) Bai. Pentsa! Alarma laranja jarri dutela entzun dut albistegian.
(Ulertz.) ¿Benetan? ¿que han anunciado alarma naranja?
(Mintz.) Bai, bai, alarma naranja. Baina tira, nik behintzat gaur ez dut etxetik ateratzeko asmorik.
(Ulertz.) Vamos, que tú tranquilo sin salir de casa.
(Mintz.) Hala da. Eta zuk zer? arratsaldean kalean ibili behar duzu?
(Ulertz.) ¿A ver si voy a salir a la calle a la tarde?
(Mintz.) Bai
(Ulertz.) Ez, ni ez naiz kalera aterako

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

***6.- Hizkera malgua erabiltzen duena***

***Ulerrizketan*** gaizki aritzen direnean sortzen diren komunikazio-arazoak gainditzeko, ***mintzatzaileak*** hizkuntzaren malgutasunean oinarritu behar du, modu batean ezin esan dezakeena beste modu batez esan ahal izateko. Hizkuntza modu malguan erabiltzeak esan nahi du ideia bera hamaika modu ezberdinetan adieraz daitekeela; hau da: ez dagoela modu bat eta bakarra zerbait komunikatzeko.

Malgutasuna da jakitun izatea modu bat erabilita komunikatzea lortzen ez dugunean, aldamenean beste hamaika modu desberdin ditugula komunikazioa berriz saiatzeko. Modu batek kale egiten duenean, beste modu bat bila dezakegu, eta beste bat behar izanez gero, harik eta modu egokia aurkitu arte. Malgutasunez jardutea da ***mintzatzaileari*** komunikazio-hutsuneen aurrean proposatzen zaion jokaera nagusia ***Ulerrizketan.***

Esan genezake ***mintzatzaileak*** komunikazio-hutsuneak gehienbat eta nagusiki euskaraz gainditu behar dituela (gaztelaniara pasa gabe). Hauxe da arau nagusia, estrategia lehenetsia, joera argia. Erdara erabiltzea ere, dena den, proposatzen da, egoera jakinetarako: egoeraren larriak (tentsioa, presa, gaiaren garrantzia, blokeo arriskua…) hala eskatzen duenean. Metodologiari arau argia proposatzen da, baina ez itogarria.

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologia – Ezaugarri nagusiak

**7.- Parte hartzaileen erabakia eta asteroko berrespena**

***Ulerrizketa*** metodologiak, joko-arau batzuk proposatzen ditu, baina dinamikaren oinarrian partaideen borondatea dago. Bai esperientzia abiatu edo ez erabakitzeko, eta bai, behin abiatuta, astero-astero berresteko jarraitu nahi duten, edo ez. Partaideek erabakitzen dute, behin formazioan ezagututa zein dinamika proposatzen den, ea haien harremanean egingarri ikusten duten, harreman horretan ekar ditzakeen aldaketak, horri ekiteko gogorik duten, une egokia ote den horretarako, eta abar.

Esperientzia abiatzea erabakiz gero, astero berrespen fitxak betetzen dira, eta horietan adierazi ea aurrera jarraitu nahi duten edo ez. Esperientziak orotara 8 aste ditu, baina asteroko berrespen batean ez jarraitzea erabakitzen bada, une horretan amaitzen da.

Esperientziak amaitu ostean, osorik garatu direnen kasuan, amaierako balorazio-bilera bat egiten da. Aldiz, esperientzia batean partaideek ez jarraitzea erabaki badute (eta beraz, ez bada osorik garatzen), amaierako balorazio hori ez da egiten, partaideek esperientziarekin aurrera ez egitearen inguruko azalpenik eman beharrik ez izateko.

***8.- Ariketa enpatikoa***

Metodologia honen oinarrian, finean, ariketa enpatiko bat dago: definitutako rolek bestearen ikuspuntua eta bizipena kontutan eduki behar dute metodologiak aurrera egingo badu. Funtsean, lankidetza egitasmo bat da, konplizitate maila bat eskatzen duena. Hain zuzen, jokaera egiaztatzailea, hizkera malgua eta hizkera egokitua erabili beharrak hala erakusten dute. Oinarri hauek ondo garatzeko ezinbestekoa da ***ulertzaile*** eta ***mintzatzaileen*** arteko harremanean *sintonizazio* bat jazotzea, eta ariketa, beti ere metodologiekin oinarriekin bat eginez, nola aurrera eraman beraien artean adosten joatea.

## Laburpen eskematikoa
### Ulerrizketaren atalak, funtzioak eta arriskuak

**1) JARDUTEA**
***Mintzatzaileak*** euskaraz jardun behar du nagusiki eta ***ulertzaileak*** berriz, konprobatu egin behar du eta elkarrizketa jarraitu, gazteleraz (edo euskaraz). Jardutearen arrisku bat ***mintzatzailea*** bakarrizketan aritzea da, "elkar-hizketa" baten joan-etorritik urrun. Beste bat da ***ulertzailea*** hasieratik guztia euskaraz esaten saiatzea, komunikazioa asko mantsotuz. ***Ulerrizketako*** dinamika egokia izan dadin ***mintzatzaile***<>***ulertzaile*** artean jarduteko moduak gutxieneko jario bat mantendu behar du.

**2) SINTONIZATZEA**
***Mintzatzaileak*** euskara ulergarria erabili behar du *sintonizazioa* eman dadin; ***ulertzaileak*** aldiz, zer behar duen eskatu behar du. *Sintonizatzea* gaizki egitearen arriskua elkar ezin ulertzea da.

**3) ZIURTATZEA**
***Mintzatzaileak ulertzaileari*** ea zer ulertu duen galdetu behar dio eta ***ulertzaileak*** aldiz, zer ulertu duen konprobatu behar du. Ez ziurtatzearen arriskua, orokorregi ibiltzea da.

**4) ARGITZEA**
***Mintzatzaileak*** esaldiak berregin beharko ditu gaztelerara pasatu gabe; ***ulertzaileak*** aldiz, zer ez duen ulertu argitu beharko du. Puntu honetan, arriskua zehatzegi ibiltzea izango litzateke.

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Ulerrizketa dinamika bere osoan
### Atal nagusiak




Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Formazioa

***Mintzatzaile*** eta ***ulertzaileek*** rol-etan ongi eta eroso aritzeak hainbat inertzia soziolinguistikori aurre egitea eskatzen du □. Horretan laguntzeko, esperientziarekin hasi aurretik, formazio-saio bat egiten da, trebatzaile baten gidaritzapean.

Formazioaren jardunean, jarduleek aukera dute ***Ulerrizketak*** eskatzen dituen trebetasun eta jokabide "arrotzak" ezagutzeko, ulertzeko eta praktikatzeko. Hain zuzen, jarduleak kontura daitezke ezen ustez hain "arrotzak" ziren jokabideak ez zaizkiela bukaeran hain "arrotz" gertatzen. Formazio-saioa giltza da jarduleek inertzia sozial batzuk gelditu eta beste jokamolde batzuei aukera emateko. Aldi berean, beraien arteko harreman naturalean, esperientzia ea egingarri ikusten duten baloratzeko une eta egoera egokia da.

Formazio saioaren beste helburuetako bat ***ulertzaile*** eta ***mintzatzaileen*** arteko konplizitate giroa eraikitzea da. Azken honek, jokabide berriei babesa eta zentzua ematen laguntzen du, metodologiaren garapena erraztuz.

Formazio orokorra bi orduko bi saioz osatuta dago eta ***ulertzaile*** bat eta bi ***mintzatzaile*** elkartzen dira *trebatzaile* baten gidaritzapean □□. Kasuaren arabera, bi orduko bi saioren ordez, nahikoa izan daiteke bi orduko saio bakarrarekin. ***Mintzatzaileetan***, bi izateko aukerarik ez badago, bakarrarekin egin liteke, bai formazioa, eta baita esperientzia bera ere; kasu horretan, ordea, esperientziaren abiapuntua ahulagoa da.

- □ Besteak beste, hauek izan daitezke: *ele-biko elkarrizketak* saihestea; gaitasun ertainekoekin aritzerakoan, hizkeraren erregistroa eta abiadura solaskidearen mailara ez egokitzea; jatorrizko hiztunekin aritzerakoan, hizkuntza maila ertainekoek isilik, pasibo, lotsatu eta uzkurtua bezala jokatzea, etab.
- □□ Formazio saioetan lantzen diren gaiak eta ariketak ezagutzeko, ikus *Ulerrizketa metodologia* (2019) argitalpenaren 4. atala ("Formazio saioa", 73-97 or.). Hemen eskuragarri: [redacted]

Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Esperientzietarako irizpideak

Metodologiaren gakoa jarduna da, hortaz, egunerokoan, edota maiz, beraien artean hurbileko harremana daukaten kideak dira egokienak ***Ulerrizketa*** esperientziak haien artean egiteko □.

***Gipuzkoa Arigune*** egitasmoarekin lotuta, egokiena udalerri bakoitzeko talde erdi-antolatuetara jotzea da, alegia, udalerrian kokatuta dauden elkarte edota erakunde ezberdinetara. Talde hauetan gutxieneko maiztasun bat duten harremanak egon ohi dira -berez- eta erakunde edota elkarteak ere aterki gisa lagundu dezake hizkuntza-praktikak aldatzerako orduan. Jarraian, udalerrietan esperientziak egiteko egokiak izan litezkeen aukera batzuk zerrendatzen dira:

1. [redacted]Eskolak antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak; guraso elkartea; irakasle-guraso harremana; harremanak… (hezkuntza komunitatea, oro har).
2. [redacted]Kirol elkarteak edota musika elkarteak gune egokiak izan daitezke honelako metodologiak planteatzeko.
3. [redacted]daleko batzorde ezberdinak edota langileak beraien artean zein herritarrekin dituzten harremanetan.
4. [redacted]z dira erakundeak, baina udalerrietan garrantzia daukaten eremuak izan litezke.

Metodologia aurrera eramateko adostasuna eta dinamika enpatikoa talde txikietan mamitu eta garatzen da, eta hori izango hizkuntza-ohituren aldaketarako oinarri nagusietako bat. Nolanahi ere, esperientzian zuzenean parte hartuko ez duten inguruko kideekin ere eraiki litezke konplizitateak, batez ere talde txikitik zabalagoetara hedatzeko aukerei begira.

- □ Hurbileko harremana, batez ere maiztasunari dagokionean: egunerokoa, edo ia egunerokoa. Harreman naturalak aukera eman behar du, izan egoera formalean, informalean, edo bien konbinaketarekin, egunero bataz beste gutxienez 30 minutuz zuzeneko harremana izateko.


Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Ulerrizketa esperientziak antolatzeko urratsak
Ezaugarri egokiak dituen Ulerrizketa unitate bat lokalizatutakoan, LOKALIZAZIO-FITXA bete eta bidali.
Aldahitz-eko ikerlarien eta Gipuzkoa Ariguneko kideen oniritzia izanik, behar den kasuetan, erakundeko edo guneko ARDURADUNEN ONIRITZIA eskatu.
Balizko parte hartzaileekin kontaktu pertsonala egin. Lehenik Ulertzailearekin eta, hark interesa badu, harentzat mintzatzaile egokiak bilatu. Ulerrizketa esperientzia baterako aurre-kontsulta egin.
Ulertzaile-mintzatzaileek interesa badute, bilera laburra antolatu, metodologiaren nondik norako nagusiak azaltzeko. Interesa badute, FORMAZIOA antolatu trebatzailearekin.
Formazio saioa eman eta ESPERIENTZIA ABIATZEKO erabakia hartu (bai/ez). Abiatzekotan, egutegia eta asteroko dinamika adostu.
Ulertzailea-ren ulermena B1 ingurukoa dela konprobatzeko, ulermen-proba bat erabiltzen da. Mintzatzaileak ahoz nahikoa erraztasun duela konprobatzeko, berriz, ez da probarik egiten, nahikoa da aurrez aurreko izandako harremanarekin.


Ulerrizketa metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Eredu estandarraren hezurdura
1.- Aurre-lanak
1.1.- Pertsona eta egoera egokiak lokalizatu.
1.2.- (Behar den kasuetan) Erakundeko arduradunei urratsak abiatzeko oniritzia eskatu.
1.3.- Kontaktu pertsonala egin balizko parte hartzaileekin.
1.4.- Bilera egin informazio zehatza emateko eta formazioari buruzko erabakia hartzeko.
2.- Formazioa eta erabakia
2.1.- Bi orduko aurrez aurrekoa lehen saioa (ulertzailea-trebatzailea harremanean zentratua).
2.2.- Aurrez aurreko bi orduko bigarren saioa (ulertzailea-mintzatzailea harremanean zentratua).
2.3.- Esperientzia ingurune naturalean abiatzeko erabakia hartu.
3.- Esperientzia
3.1.- Ulerrizketa unitatea: ulertzaile bat eta bi mintzatzaile (ezin bada, bat).
3.2.- Mintzatzaileen hizkuntza-araua:
- Gehienetan euskaraz jardutea ulertzailearekin nahiz beste mintzatzailearekin.
- Euskara ulergarria erabiltzea ulertzailearekin.
3.3.- Ulertzailearen hizkuntza-araua:
- Ulertzeko lanetan aktibo jardutea.
- Ulertzen duena konprobatzea, bestela eskatzea.
- Bere esku dago erdaraz edo euskaraz jardutea, baina elkarrizketaren gutxieneko jarioa bermatuz.
3.4.- Bi hilabeteko iraupena edukiko du esperientziak (astero berretsi eta amaiera arte heltzen bada).
3.5.- Asteroko jarraipen sistema fitxa baten bidez, jarraitzeko nahia eta berrespenarekin.
3.6.- Amaieran balorazioa (osorik garatzen diren esperientzietan).
Ulertzailea-ren ulermena Ulerrizketa-k eskatzen duen gutxienekoaren gainetik dagoenean (nolabait esan, B1 inguruko ulermenetik gora), 2 orduko bi saio egin ordez, formaziorako nahikoa izaten da 2 orduko saio bakarrarekin.

## 6.13 *EUSLE* METODOLOGIA. MATERIAL BERRITUA.









Eusle metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologiaren baldintzak eta dinamika

- ***Eusle*** rolean ari denak, euskaraz egingo die, ahoz eta idatziz, taldeko gainerako kide guztiei ❑. Gainerako kideek zaindu eta babestu egingo dute ***eusleen*** hizkuntza-jokaera hori (baita gogorarazi ere, uneren batean ahazten bazaie), baina askatasuna izango dute euskaraz edo gaztelaniaz aritzeko ❑❑. Hori bai, ezingo diote ***eusle*** bati eskatu gaztelaniaz egiteko, taldearen eskaerari erantzuten baitio haren euskarazko jokaerak.
- Taldeko kide guztiek behar dute gaitasuna euskaraz elkarrizketa arrunt bat ongi ulertzeko; gainerakoan, ***eusleek*** ezingo lukete euskara hutsez jardun, taldearen jarduera eta taldeko harremanak kaltetu gabe.
- Dinamika hau abiatzen duen taldeak izaera definitua eta harreman maiztasun bat izan behar du, tartekoa edo handia. Ahal dela, aurrez aurreko harremana izango da, eta taldeko kide guztiak bere baitan hartzen dituena.
- Esperientziak bi hilabete irauten ditu ❑❑❑, eta taldearen gehiengo nabarmen baten baiezkoak (*gehiengo kualifikatua*) ematen dio hasiera. *Gehiengo kualifikatu* hori gabe ez da abian jartzen. Abiatuta ondoren ere, taldeak astero berretsi behar du jarraitzeko nahia, gehiengo-maila horrekin.

❑ *Eusle* metodologiaren esperientzien helburu eta oinarri nagusia ahozko harremanak dira (printzipioz, aurrez aurrekoak, baina online edo telefono bidezkoak ere izan litezke), baina idatzizko harremana ere barne hartzen du. Idatzizko harremanetan, *eusleak* ahozko arau berdina jarraituko du: euskaraz egingo die idatziz taldeko kide guztiei. Sortzen diren dokumentu idatzietan, bestalde, arau hori aplikatuko zaie talde horren baitan geratzen diren dokumentuei; taldetik kanpora (ere) ibilbidea duten dokumentuen kasuan, baloratuko da zein izan litekeen *eusle-aren* jokaera.

❑❑ Gaztelania diogun lekuan, berdin jar liteke frantsesa, Iparraldeko kasuan.

❑❑❑ Ohiko esperientziek bi hilabeteko edo 8 asteko iraupena dute. Talde txikien eta harreman intentsitate handia dutenen kasuan, laburragoak izan litezke.

Eusle metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Metodologiaren baldintzak eta dinamika

- ***Eusleen*** aukeraketa:
  - ***Eusleak*** ez dira zeregin horretarako berez burua eskaintzen dutenak, taldeak aukeratzen ditu. Hortaz, ***eusleen*** hizkuntza-portaera berriaren ardura eta oinarria ez da kide (banako) horiena, taldearena baizik.
  - Ohiko esperientzietan (10-30 kide), ***eusleak*** kide horien %20 dira. Talde txikiagoetan proportzio hori handiagoa da.
  - Bi hilabeteko esperientzietan eusleen bi txanda egin ohi dira, hilabetekoa bakoitza, eta txanda amaitutakoan ***eusleak*** aldatzen dira. Taldearen ezaugarrien eta harremanen arabera, hau egokitu egin liteke.
  - Erronkari baietz esateak berekin dakar onartzea ***eusle*** izateko aukera, taldeak hala erabakitzen badu. Nolanahi ere, aukeratutako ***eusleari*** bere oniritzia eskatzen zaio, eta eragozpenen bat adierazten badu, taldean baloratzen da kasua, esperientzia abiatu aurretik.
    - Bada muga bat aukeraketa horretan: normalean ez dira aukeratzen euskaraz mintzatzeko erraztasunik ez duten kideak (gaitasun mugatua). Halako kideentzat gehiegizko erronka izaten da ***eusle*** gisa aritzea.
- ***Eusleari*** hizkuntza arau zehatza ezartzen dio abiatutako dinamikak: euskal elebakar gisa jokatuko du ***eusle*** zereginari heltzen dion bitartean, hau da, beti egingo du euskaraz taldeko kide guztiekin, gaia edozein dela ere (informala edo formala), ahoz bezala idatziz ere. Arau hori desaktibatu egiten da talde definitu horretatik kanpoko pertsonak elkarrizketan sartzen direnean.
- ***Eusle*** gisa ari ez diren taldeko gainerako kideek ez dute hizkuntza arau finkorik, hau da, euskaraz edo erdaraz hitz egin dezakete, bakoitzak nahi duen bezala. Hori bai, ez zaie onartzen eska diezaieten ***eusleei*** erdaraz hitz egiteko edo idazteko.
- Asteroko galdetegiaren bidez, neurtzen da ***eusleak*** zenbateraino ari diren eskatutako rol hori ongi betetzen. Betetze-maila ona ez denean, protokolo sinple bat abiatzen da, hobetzen saiatzeko.

Eusle metodologia. Oinarriak eta jarraibideak, 2025

## Esperientziak abiatzeko eta garatzeko urratsak

1) Lehen urratsa ***Eusle*** esperientzia bat egiteko ezaugarri egokiak dituen talde bat identifikatzea da. Hiru baldintza bete behar ditu taldea [redacted] lde *natural* bat da, izaera definitua duena, eta taldeko kideek haien artean maiz harremana dutena. Ahal den neurrian, aurrez aurreko harremana, eta kide guztiak elkarrekin egonik. Talde *natural* [redacted] o ez) esperientzia egitea, ez zati batek.
   [redacted] deko kide guztiak dira euskara ulertzeko gai.
   [redacted] lako dinamika edo erronka bat aurrera ateratzeko gogoa du taldeak (*gehiengo kualifikatua*).

2) Bigarren urratsa da talde horretako kide guztiekin batzar bat egitea. Bertan metodologia aurkezten da, egon litezkeen zalantzak argitzen dira eta taldeak erabakia hartzen du: esperientzia abiatu edo ez. Baiezkoa erabakiz gero, bileraren amaieran aukeratzen dira ***eusleak*** (bi txandatarako) botazioaren bidez, koordinatzailea, eta asteroko dinamika adosten da (taldeko berrespenak eta jakinarazpena).

3) Behin esperientzia abiatuta, aste bakoitzaren amaieran kide bakoitzak fitxa labur bat betetzen du, bi gairen inguruan: ***eusleen*** hizkuntza-arauaren betetze maila, eta esperientziarekin aurrera jarraitzeko gogoa.

4) Taldeko koordinatzaileak biltzen ditu fitxak astearen amaieran, eta hurrengo astearen hasieran emaitza orokorra itzultzen die taldeko kide guztiei. Horrela, astelehenean kideek badakite esperientziak aurrera jarraitzen duen (edo ez).

## Esperientziak abiatzeko eta garatzeko urratsak

5) Fitxetan ikusten bada ***eusleren*** batek bere rola betetzeko zailtasunak dituela, protokolo sinple bat abiatzen da, ***eusle*** horri taldeak eskatu dion hizkuntza-araua betetzen laguntzeko:
   a) Aztertzen da non edo zertan duen zailtasuna.
   b) Ea taldeak zertan eta nola lagundu dezakeen zailtasun hori(ek) gainditzen.

6) Esperientziaren asteroko berrespenean kasu guztietan taldeak aurrera egitea erabaki badu, 8. astea osatutakoan amaitzen da esperientzia. Amaitu ondorengo astean, taldeko kide guztiekin bigarren bilera bat antolatzen da, esperientziaren balorazioa egiteko.
   - Esperientzia lehenago amaitu bada berrespenetakoren batean aurrera egiteko nahikoa borondate ez zegoelako, ez da balorazio-bilerarik egiten. Oro har, taldekideek esperientzia garatzeko ahalik eta askatasun gehien izan dezaten, une batean aurrera ez jarraitzea erabakitzen bada, ez zaie horri buruzko azalpenik eskatzen.

7) Esperientzia amaitu eta hiru hilabetera, tarteko 12 asteetan inolako jarraipenik egin gabe (ez dago ***euslerik***, ez asteroko galderarik…), galdetegi bat bidaltzen zaie taldekideei, haien arteko hizkuntza-harremanei buruzko informazioa eskatzeko.
   - Aurretik, beste bi unetan egiten da hizkuntza-harremanei buruzko galdeketa (*mintzagrama*): hasierako bileran (esperientzia abiatu aurreko egoera), eta balorazio-bileran (esperientzia amaitu berritan).





## Esperientzietarako irizpideak

***Gipuzkoa Arigune*** egitasmoarekin lotuta, egokiena udalerri bakoitzeko talde erdi-antolatuetara jotzea da, alegia, udalerrian kokatuta dauden elkarte edota erakunde ezberdinetara. Erakunde horien baitan bilatuko ditugu ***Eusle*** metodologiaren dinamika aurrera eramateko ezaugarri egokiak dituzten taldeak, handiagoak edo txikiagoak.

Erakunde edota elkarte horiek, bere aldetik, aterki edo aldeko testuinguru gisa lagundu dezakete hizkuntza-praktikak aldatzerako orduan. Jarraian, udalerrietan esperientziak egiteko egokiak izan litezkeen aukera batzuk zerrendatzen dira:

[redacted] kolak antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak; guraso elkartea; irakasle-guraso harremana; [redacted] harremanak… (hezkuntza komunitatea, oro har).
[redacted] ol elkarteak edota musika elkarteak gune egokiak izan daitezke honelako metodologiak planteatzeko.
[redacted] ezberdinak edota langileak beraien artean zein herritarrekin dituzten harremanetan.
[redacted] dira erakundeak, baina udalerrietan garrantzia daukaten eremuak izan litezke.

***Eusleen*** [redacted] berriak taldeko harremanetan abiatu, onartu eta kudeatzeko prozesua, esperientzia garatzea erabaki duen talde horren baitan gertatuko da. Nolanahi ere, esperientzian zuzenean parte hartuko ez duten inguruko kideekin ere eraiki litezke konplizitateak, eta alde horretatik lagungarri izan liteke erakundeko gainerako partaideek esperientzia honen berri izatea (kasuaren arabera baloratu zein den horretarako une eta modu egokia).

## 6.14 *EUSLE* ETA *ULERRIZKETA.* LOKALIZAZIO FITXA BERRITUAK.



Esperientzien lokalizaziorako fitxa

1. Kokapena

2. Taldea eta harremanak

3. Taldearen egonkortasuna



Aldahitz Ikerketa 2025
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

4. Taldekideen euskarazko gaitasuna

- Talde horretan, kide guztiek dute euskaraz "elkarrizketa arrunt bat" ulertzeko gaitasuna?
- (horretan zalantzazko kasurik balitz) Zein erreferentzia dituzue euskara ulertzeko zailtasunak izan ditzaketen horiei buruz? (adierazi banaka)
    - 
- *Eusle* izateko, taldeak kideak aukeratuko ditu euskaraz hitz egiteko "erraz samar" moldatzen direnen artean. Dakizuen arte, irudikatutako taldean nolakoa da banaketa? Zenbat dira euskaraz hitz egiteko erraz moldatzen direnak, eta zenbat maila hori ez dutenak?

5. Taldeari galdetu aurretik...

- Guneko organigrama, prozedurak eta ohiturak kontuan hartuta, zein organu edo arduradunen oniritzia beharko luke esperientziak? (halakorik behar bada)
- Baduzue (aurreko galderako) organu edo arduradun horiekin harreman zuzenik, edo gai hau haiekin lantzeko modurik?

6. Aurretik egindako ekimenak

- Gune, talde, erakunde… horretan, egin izan dira kideen arteko harremanetan euskarazko erabilera areagotzeko ekimenak azken urteetan? (baiezkotan) Zeintzuk edo nolakoak?

7. Besterik?

- Adierazi hemen beste edozein ohar edo zalantza:

Mila esker aldez aurretik!

- Data:
- Fitxa bete duenaren izena:

www.soziolinguistika.eus



4. Taldekideen euskarazko gaitasuna eta erabiltzeko ohitura

5. Taldeari galdetu aurretik...

6. Aurretik egindako ekimenak



Aldahitz Ikerketa 2025
Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuen azterketa

*Eusle metodologia esperientziak Gipuzkoa Arigune*

## Esperientzien lokalizaziorako fitxa
(talde natural edo gune bakoitzerako fitxa bat)

*Eusle* metodologia esperientzia bat garatzeko irudikatu duzuen pertsona talde hori gogoan izanik bete galdetegia, zuek duzuen informazioarekin (balizko partaideei ezer galdetzera joan gabe). Kasu batzuetan erantzuna laburra da (kopuru bat edo bai/ez). Besteetan, saiatu kasuan kasuko egoera labur deskribatzen, ezagutzen duzuen bezain zehatz (horretarako, behar adina idatzi galderen arteko tarteetan).

### 1. Kokapena

- Taldea (gunea, erakundea…):
- Herria:
- Taldearen saila(k)/arloa(k): (bat baino gehiago badira, aipatu guztiak)
  -

### 2. Taldea eta harremanak

- Zenbat kide dira esperientziarako irudikatu duzuen taldean:
- Irudikatutako hori "talde naturala" da? (kontuan hartu a) Harreman fisikoa (noiz, zenbatero, zertarako… elkartzen diren) eta b) Taldearen izaera (elkar ezagutza, erakundean betetzen duten funtzioa, zerk elkartzen dituen…)
  -
- Eguneroko harremana dela eta, irudikatutako talde horretako kideek izaten dute elkarrekin ahoz harremanik? Zenbatekoa? Nolakoa?
  -

### 3. Taldearen egonkortasuna

- Oro har, irudikatutako taldeko kideen arteko harremana aspaldikoa da?
- Gune horretan egonkortasuna handia da? edo maiz gertatzen dira kide aldaketak?
  -
- Zehazki, datozen hiru-lau hilabeteetan, badago aurreikusita talde honi zuzenean eragingo dion aldaketarik?

www.soziolinguistika.eus



ALDAHITZ IKERKETA 2025

### 7. Harremana, giroa eta bestelako inpresioak

- Irudituko zaizu baldintza egokiak daudela talde horretan giroaren eta euren arteko harremanaren aldetik, halako esperientzia bati ekiteko? Ulertzeko metodologiaren ezaugarriak kontuan hartuta, halako esperientzia bat egiteko une eta talde egokia denaren sentsazioa duzu?
- Zure ustez aipatzekoa den beste edozein informazio edo inpresio?

Mila esker aldez aurretik!

- Data:
- Fitxa bete duenaren izena: